

Ramon Saizarbitoria:


“Euskal nobelak erdaratzen dira Euskal Herriko erdaldunek irakur ditzaten”



“Zergatik idazten duzu?”. Hori da idazleei egin ohi zaien galdera. Hizkuntza gutxituak ditugun herrietan, berriz, kontrakoa galdetzen da: “zergatik ez duzu idazten?”. Eta horrexegatik sartu zen Ramon Saizarbitoria literaturan, galdera hori egin ziotelako, alegia. Rikardo Arregik eskatuta, *Argian* hasi zen idazten, eta gaur arte ez da gelditu. “Hizkuntza txikietan horrela hastea normala zen. Euskaraz bazenekien, eta idatzi egin behar zenuen”, dio Saizarbitoriak. Hori aldatzen joan da, baina oraindik ere, idazle donostiarrak honako gogoeta egiten du: “Euskal Herrian jaio ez banintz, beharbada nik ez nuke idatziko”.

10. or.

Haurrak eta hizkuntzen ikasketa



“Haur guztiek –argienek zein motelenek– modu naturalean ikasten dituzte hizkuntzak, ahaleginik egin gabe. Prozesu erabat naturala da”, esan zuen Jürgen Meisel Hamburgoko Unibertsitateko irakasleak IASCeK (Haurren Hizkuntzaren Azterketarako

Nazioarteko Elkarte) Donostian egindako biltzarrean. Parte hartu zuten adituen arabera, hizkuntzak ikasteko gaitasun hori galdu egiten da bost eta hamar urte bitartean, eta frogatuta dago elebrietan ikasi duten haurrentzat askoz ere errazagoa dela hirugarren hizkuntza bat ikastea; beraz, haurren elebitasunaren aurkako argudioak ez dira zientifikoak, politikoak baizik, izan ere batzuek pentsatzen dute nazio bat izateko hizkuntza bakar bat izan behar dela.

13. or.

Eztabaida: Zokoratu al dezake liburu elektronikoak liburu tradizionala?


Gaur egun ezin dugu liburuari buruz hitz egin orain dela urte batzuk egiten genuen modu berean. Liburu tradizionalarekin batera (paperezko orrialdeak dituen), liburu elektronikoa ekarri digute teknologia berriek. Liburuaren kontzeptua, hortaz, aldatu egin da, eta dagoeneko ez da paperezko euskarrira mugatzen. Baina kontzeptuaz gain, liburu elektronikoak egundoko aldaketak ekarriko ditu aldean, eta editore, idazle eta irakurleek nekez ihes egin ahalko diote etorriko zaigunari. Halere, aldaketok poliki gertatzen ari dira, eta batez ere zenbait esparrutan: hiztegiatan, entziklopedietan, saiakera-liburuetan... Liburuaren etorkizuna argitzea ez da erraza, baina bistan dago egun dagoenaren oso bestelakoa izango dela.

20. or.

5
Arantxa Urretabizkaia
«Funtzionario», erantzun zion Donostiako izebari, haunditzerakoan zer izan nahi duen galdetu ziotenean...”

6
Normalkuntza
Oraingo zenbakian, bi hizkuntzaren berri: Eskoziako gaelera eta Alemaniako sorbiera

22
Lan-osasuna
Lanbideko gaitzak eta lanarekin zerikusia dutenak: zaintza eta prebentzioa



"MAITASUNKRAZIA"



PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Joseba Lozano

Diseinua, fotokonposaketa eta imprimaketa: Itxaropena S.A.

Marrazkiak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:
Amaia Balda, Itxaro Borda, Lutxo Egia, Luis Elizondo, Edorta España, Jakes Goikoetxea, Aitor Gorostiza, Ismael Gorostiza, Enrike Gorrotxategi, IZO, Fede Jimenez, Joseba Lozano, Luma, Miren Agur Meabe, Concetta Probanza, Cristina Puelles, Arantxa Urretabizkaia.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkarian argiratutako artikulua berridatz daitezke, bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

Legezko Gordailua: BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Wellingtongo Dukea 2. 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. /<http://www.ivap.org>

PERTSONAIA

Ygor Yebrá:

“Nire bizitza azkarregia izan da”



Askorentzat ezezaguna izan arren, baleteko euskal dantzari ospetsuena da. Bere kontura dantza egiten du, egun batean konpainia batekin eta hurrengoan beste batekin. Munduko talderik onenek deitzen diote beraiekin lan egiteko eta propio presatzen dizkiote saioak. Zintzoa, umoretsua, kritikoa, borrokalaria, sutsua, lotsagabea batzuetan. Gauzak diren bezala esaten ditu, hala pentsatzen duelako, eta hala egin dezakeelako.

Txikitari futbol taldeko kapitaina zinen. Oraindik ere, Athleticzalea?

Bai, baina ez amorratu horietakoa. Ahal dudan guztietan Athleticen nondik-norakoak jarraitzen ditut. Pentsa, Australiara joan nintzen lehen aldian telebista piztu eta Athleticen partidu bat ematen ari ziren.

Baletean nahiko berandu hasi zinen, 13 urterekin. Ez da ohikoa, ezta?

Ez; hala ere, berandu samar hasi arren, eta hau da garrantzitsua, inork ez ninduen bultzatu baletera: benetan hasi nahi nuelako hasi nintzen; beraz, hainbeste ordu sartzea ez zen hain gogorra izan. Gurasoek baleteko klaseak ematen zituzten eta betidanik arnastu dut dantza giroa etxean. Gurasoekin hasi nintzen, arreba joaten zen eskolara eraman ninduten gero, eta urtebete eskasera Madrilén nengoen, ikusi baitzuten dohainak nituela dantzan jarduteko. Orduetik ez naiz geratu, batetik bestera, munduan zehar. Nire bizitza azkarregia izan da.

Zer aurkitu zuen 14 urteko bilbotar batek, bakarrik egonda, Madrilén?

Egia esan, *shock* bat izan zen, oso gogorra hasieran. Baleta honenbeste gustatu ez balitzait eta hainbeste maite izan ez banu, erraz utziko nuen.

Dibo fama duzue. Egiazkoa al da?

Bai, baina baditu bere arrazoiak. Milaka lagunek mirestu eta txalotzen zaituzte eskenatikian zaudela eta horrek aldarazten zaitu; eskenatikitik jaistean, ordea, Ygor naiz, gairontzekoak bezalakoa. Hala ere, neurri batean, dibo izaera kanporatzen dut, bestela jendeak jan egiten baitzaitu.

Zeure kontura lan egiten duzu. Zer dela eta?

Dantza maite dut eta nire ezaugarriek bide ematen didate estilo ezberdinetera egokitzeke. Horretaz baliatu nahi dut, ikasi egin nahi dut, mugarik jarri gabe. Konpainia batek ziurtasuna eta lasaitasuna eskaintzen ditu, baina baita mugak jarri ere. Nik, berriz, gustatzen ez zaidan zerbait proposatzen didatenean

ezetz esaten dut. Jakina, horretarako aukera dut, baina ez da erraza. Etengabe sasoiari egon behar dut, ez baitakit noiz deituko didaten. Alde horretatik ez dut oporrik.

Noizko zure konpainia?

Borrokan egingo dut nire konpainia sortzeko, niretzat baino gehiago, atzetik datorren jendearentzat. Ondo ateraz gero, haurrek baleta egin ahalko dute, eta, ez dute kanpora joan beharko, nik egin nuen bezala.

Azkenaldian asko kritikatu duzu Espainian dizuten errespetu falta. Bertan dantza egiteko limosna eskatu behar duzula salatzen duzu.

Betikoa da. Espainiara etorri naizen apurretan neronek jarri behar izan dut dirua edo *cachet*-a modu barregarrian gutxitu behar izan dut; beste leku batzuetan, aldiz, dantzariak errespetatzen dituzte. Kultur programen arduradunek hitz eta lausenguetatik ekintzetara pasa behar dute.

Euskalduna Jauregiaren inaugurazioan dantzatu behar zenuen, baina lesionatu egin zinen. Bost hilabeteren ostean, aurten go udan hasi zara berriro dantzan. Pozik?

Bai, izugarri. Lesioak zuhurtasunez pentsatzea eta jokatzeko zer den erakutsi dit. Konturatu naiz pribilegiatua naizela.

Ba al duzu Bilboren aldaketan berri?

Bai. Bilbo oso azkar aldatzen ari da, azpiegitura handiak sortzen ari dira, baina edukiontziez gain, edukiak ere sortu beharko liriteke. Edukiontzia, oso polita izanda ere, ez du ezertarako balio edukirik gabe.

Noiz ikusiko zaitugu Euskal Herrian dantzatzen?

Zaila da, amets bat. Familia Bilbon dut eta egindako sakrifizioak merezi izan duela erakutsi nahi nieke.

Jakes Goikoetxea
Kazetaria

A tope!

Ez du nolanhiko mugimendua eragin aurtengo udan ditxosozko kanpaina horrek, ez alajaina. Gure ama ere telefonotik hoska nuen, estu eta larri, ormaiztegiarra telebistan ikusi zuenean, hortik atera kontuak. Denok ez duzue gure ama ezagutuko, ordea, eta igoal pentsatuko duzue egun guztia telefonotik “zintzilik” egoten den horietakoa dela. Deskuidatuta zaudete. Erretiro sariari ondo begiratzen dakien horietakoa da gure ama.

Barregura eman zidan gure ama ere hainbestearaino mugitua ikusteak, eta baita hurrengo eguneko Egunkarian ilustre batek esanak ere. Horrelakoetan ez dela itzuli behar, egokitu egin behar dela, alegia. Ez dela zuzenean itzuli behar esan nahiko zuen, zeren, nik dakidanez behintzat, egokitzapena ere bai baitago itzulpen tekniken artean. Gehiago esango dut, baita mailategatzea eta kalkatzea ere. Alde horretatik, nik uste dut –barkaiezadazue tekellante samarra izatea– *Mr Proper Lexikal* gehitxo dagoela itzultzaile lanean, *a tope* edo *topera* jartzea onartzen ez duena. Niri iruditzen zait, ordea, *eginahalean* edo horrelako esamoldeekin ez dagoela mezu horrek ailegatu nahi duen jendearengana ailegaterik, eta, beraz, hitzik egokiena *topera*-edo zela hor.

Egokitzapena ere itzulpen teknika da. Lapsus txiki bat, ordea, edozeinek izaten du, eta ez dut eskribauaren eta orbainaren kontua berritzen hasi behar. Dena dela, iruditzen zait badakidala deskuidoa zerk ekarri zuen: itzultzea da miseri eta gaitz guztien iturria; euskaraz sortzea irtenbide bakar perfektua. Eta halaxe pentsatu zuen, itxura denez, kastillanoko esaldiari buel-

ta emateko agindu zuenak, zeren, oraindik ez dakigun arren (laster jakingo dugula uste dut, kanpaina eragin duen ministerioa zein den kontuan izanez gero), lana euskaraz egiten duen horietako bati eman zion, agi denean, eginkizuna. Egurra, ordea, itzultzaileek jaso dute; sortzaileari errespetua zor baitzaio. Kulparik ez duenak nozi, orain ere!

Ez dago esaterik geroak zer ekarriko duen, bixkorra izateaz gain aztia ere izan behar baita; baina, badaude, beti bezala, bi pentsamendu klase: pesimista eta optimista. Pesimistak uste du trapu zaharra bezala ibiliko dela, lehenaz gainera, itzultzailea; eta, optimistak, hemendik aurrera kontrol eta taxu gehiago izango dela.

Puntu honetara iritsirik, aitaren papera hartu behar dut, honez gero haserre izango dut-eta hura aipatu ez dudalako, eta inor gutxi entzun nahi duen kontseju bat emango diet, dena debalde, nola optimistei hala pesimistei: erredaktoreak jartzea itzultzaileen gainetik, itzultzaileen lana begiratu eta halako bateratasun bat emateko idatzi guztiei.


Toki batzuetan badaude erredaktoreak, eta beste batzuetan ez. Nik alde on asko ikusten dizkiot erredaktoreak izateari, eta txarra franko ez izateari. Onak ez du abonatu beharrik, eta ez naiz ni abonajearen hasiko; eta onak esan gabe txarrak esatea ere ez da, ez den ez, bizi itxura handikoa. Hortaz, beste batek egin beharko du lan hori. *A tope!*

Pello Goikoetxea
Donostia

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA

✉ interinez@mindless.com



Gutunak makinaz idatzi eta, gehienez ere, 15 lerro izango dituzte. Gutunarekin batera, nahitaez, igorlearen izen-abizenak eta NANA adierazi beharko dira. Jasotako gutunak ez dira itzuliko. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du gutunak laburtuta argitaratzeko. Halaber, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak bere erantzuna eman ahal du sail honetan bertan.

Aitonaren trauma



“Funtzionari”, erantzun zion Donostiako izebari, haunditzeroan zer izan nahi zuen galdetu zionean. Izebak, harriturik, galdetu zion ze lan klase zen hura eta neskak, zalantza izpirik gabe, argitu zion funtzionariak agintarientzat lan egiten dutenak direla. Berritsua da gure neska eta argia, oso argia, izeba zaharrari emandako erantzunak adierazten zuenez.

Ez zen, ez, etorkizunerako lehenengo asmoa. Luzaroan, haunditzeroan gidari izan nahi zuela esaten zuen, eta alde aurretik, abeslari. Boladatxo batez etxeoandre izan nahi zuela esaten zuen, baina bokazio hori aipatzen zuen bakoitzean sortzen ziren algarek irakatsi zioten beste bizibide bat aurkitu behar zuela.

Funtzionariarena, ordea, ez nion sekula aditu eta bakarrik gelditu ginenean argitu nion hitz horren barruan ofizio asko zeudela. Su-hiltzaileak, sendagileak, udaltzainak, irakasleak. Besteren bat ere bota nion, baina horiek ditut gogoan momentu honetan.

Oraindik erabat atzean utzi ez duen umearen eraginez, eskuak astindu zituen, isilean, nire hitzak aurrean jiraka ari ziren eltxoak izan balira bezala. Gero, esan zidan “funtzionari” hitza aitonaarendik ikasi zuela, hark esan ziola hor zegoela etorkizunik lasaiena. “Horrela”, esan zidan, “diru asko irabaziko dut eta zuk lan gutxiago egin-

go duzu”. Eta, horrenbestez, elkarrizketa bukatutzat eman zuen, erremediorik gabe.

Gure aitarentzat Kutxak ziren ametsa, guri sartu nahi izan zigun helburua, Administrazioa, berez eta zirrikitorik gabe, etsaiaren kobazuloa bait zen. Egia da Franco baino dexente lehenago hil zela gizagaixoa, Historiaurrean, oraindik hainbeste alaba behar bezala kolokatzeko esperantza galdu ez zuenean.

Afaldu bitartean oporrak izan genituen hizpide eta lo aurreko patrifiliotan ari ginela neskak galdetu zidan zergatik ez zitzaidan aitona gustatu. Hor, ohean, argia itzali baino lehen, aipatzen dit gauero barruan traba egiten diona. Esplikatu nion ezetz, ideia ona iruditzen zitzaidala funtzionari izatearena, aitona gizon jakintsua zela eta hark esandakoa aintzakotzat hartu behar genuela.

Esplikatu nion nire aitarentzat gerra izan zela trauma eta aitonaentzat langabezia. Eta bera gazteegia zela lanari buruzko erabakiak hartzeko, haunditzeroan berak aukeratutakoa betetzen lagunduko geniola. Edozein amets beteko zuela, baldin eta nahikoa lan egiten bazuen.

“Edozer gauza egin deza-kezu”, azpimarratu nuen argia itzali baino lehen. “Edozer gauza?”, galdetu zidan. “Edozer gauza”, ziurtatu nion, gezurra esaten ari nintzela jakinda ere.

Eta ahoan irribarre txiki bat zuela hartu zuen lo, munduko leporik ederrena banpiroei eskainia. Argia da gure neska, eta hori beti da laguntza jarriko dizkieten oztopoak gainditu ahal izateko. Gutxienez, ez dio inork lanik egin gabe biziko denik esaten.



Arantxa Urretabizkaia
Idazlea

Alemaniarriko sorbiarrak

Europako Batasuneko Itunak 11 hizkuntzatan idatzita dauden arren, bertako 50 milioi herritarren ama-hizkuntza beste bat da. EBLULen kalkuluen arabera (*European Bureau for Lesser Used Languages*), zazpi europarretatik batek hizkuntza gutxiagotua hitz egiten du. Eta gutxiengo hauen artean Alemaniako sorbiarrak dauzkagu.

Sorbiarrak Alemaniako ekialdean bizi dira, Saxonia eta Brandenburgoko estatu federatuetan, Polonia eta Txekiar Errepublikako mugetatik oso hurbil. Lurralde honi Lusatia deritzo. Sorbiera, sorbiarren hizkuntza, familia eslabokoa da; hau da, txekieraren, polonieraren eta eslovakieraren ahaidea. Sorbiarren jatorria VI. mendean aurki dezakegu, Oder eta Elba ibaien arteko eskualdera migratu zuten tribu eslaboetan. Eta X. mendetik aurrera Alemaniaren menpean egon diren arren, euren nortasun etnikoari eutsi diote gaur arte.

Sorbieraz dauden lehen testuak XVI. gizaldikoak dira. Erreforma Luteranoak kristau fedea hizkuntza natioetan hedatzera behartu zuen, eta ondorioz Biblia eta beste testu protestanteak sorbierara itzuli ziren. Eta garai haietan sortutako berezitasunak gaurdaino iraun du: bi hizkuntza literario erabiltzen dira (goi sorbiera eta behe sorbiera).

Gaur egun sorbierak 60.000 hiztun ditu gutxi gorabehera, gutxiengoa, baina Lusatian bertan ere. Adibidez, bere hiriburuan, Bautzen/Budyšin-en alegia, sorbiarrak biztanlearen %10 besterik ez dira; udalerrri bakan batzuetan dira gehiengoa bakarrik.

Sorbiarren babeserako oinarri juridikoak hainbat lege-testutan agertzen dira: Alemaniako Batasunaren Ituna (1991), Saxoniako Konstituzioa (1992), Brandenburgoko Konstituzioa (1992), Brandenburgoko Estatuko sorbiarren eskubideak babesten dituzten legeak, e.a.

Politikari dagokionez, 1912an sortutako *Domowina* erakundeak sorbiar elkarte eta organismo guztiak biltzen ditu. Bere helburua sorbiar herriaren eskubide demokratikoak eta interesak defendatzea da, baita beraien kultura eta hizkuntza bultzatzea ere. Erakunde hau 30. hamarkadan erabat debekaturik egon zen, Hitler-en garaian, baina Bigarren Gerrate Mundiala bukatu ondoren berriro ekin zion lanari. Ondorengo 40 urteetan, 1989an Ekialdeko Alemaniaren kolapsoa gertatu arte, *Domowinak* ere bestelako alderdi eta erakundeen kontrol politikoa eta erregimen berbera pairatu behar izan zuen. Orain, 90. hamarkadan, hizkuntz eta kultur arloei garrantzi handiago ematearen aldeko apostua egin dute.

Izan ere, antzeko joera ikus dezakegu Ekialdeko Europako herrialde guztietan. Muga etnikoak eta muga politikoak ez datoz bat, hainbat gertaera direla medio (Bigarren Gerrate Mundialeko sarraskiak, Postdam-eko Akordioak baimendutako garbiketa etnikoa, emigrazioa, zenbait gobernu komunistetako politikak, e.a.), eta gizarte horiek guztiak etnia askotakoak izanik, nazionalitateen mosaiko hau nolabait berpiztu egon da komunismoa desagertzearekin batera.



Lusatiako administrazio publikoari dagokionez, udal sorbiarretan herritarrek sorbiera erabiltzeko eskubidea badute ere, ezinezkoa da eskubide hori beti gauzatzea, funtzionario guztiek ez baitute sorbieraz egiten. Halaber, Alemaniako Batasunaren Itunak dioenez, sorbiera Justizia sisteman erabili daiteke eskualde sorbiarretan, baina praktikan oztopo ugari dago.

Egoera zail honetan, kaleetako eta errepideetako seinaleak elebietan egotea lorpen positibotzat jotzen du Institutu Sorbiarreko ikerlari eta Pragako Unibertsitateko irakaslea den Leoš Šatava jaunak, “kanpotarrek Lusatia bisitatzen dutenean, bizirik dauden bi hizkuntzen berri izaten baitute”.

Horretaz gain, Saxoniako Hezkuntza Aktak (1991) sorbiera eta sorbieraz irakasteko eskubidea eskaintzen du sorbiar eskualdean. Antzekoa jasotzen da Brandenburgoko Estatuko Hezkuntza Aktan (1996). Horren ondorioz, gaur egun 5.000 ikasle inguru ari dira sorbieraz ikasten, era batera edo bestera. Eta orain, 2000. urtearen atarian, bi sorbiera literarioak etengabe garatzen ari dira, garaiei egokitzuz, termino berriak sortuz eta maileguak hartuz. Hala ere, kontuan hartu behar da sorbieraren erabilerarako gizarte-baldintzak oso eskasak direla, alemaniera boteretsuarekin konparatuz gero. Dena dela, epe laburrean gauzak nabari aldatuko ez diren arren, hainbat pertsona eta erakunderen ilusio eta lanari esker sorbierak aurrera segituko du datorren milurtekoan ere.

Luis Elizondo
HAEEKo teknikaria

GÀIDHLIG, ESKOZIAKO GAELERA

Eskoziako gaelera indoeuropar multzoaren talde zeltikoko hizkuntza bat da, Irlandatik V. mendean heldutakoa, Eskozian izaera propioa hartu zuena. Talde horretan familia bi bereizten dira: alde batetik, talde gaelikoa –Irlandako, Eskoziako eta bien artean kokatzen den Man uharteko gaelerak hartzen dituena–; eta, bestetik, kornubierak, galeserak eta bretoierak osatzen duten talde bretoaia. Hizkuntza-talde bien arteko ezberdintasunak eta antzekotasunak oso nabarmenak dira.

Gaeleraren hastapena

Lehendabiziko tribu zeltak K.a. 700. urtearen inguruan heldu ziren Britainia Handira, baina gaeleraz hitz egiterakoan ez da inolaz ere hain urrutira joan behar; izan ere, gaeleraren historia aro honetako V. mendera arte ez baitzen hasi. Aipatu mendean piktoak Eskozian nagusi zirela –hizkuntza bretoiko batean mintzatzen ziren–, auzoko irlatik iritsi eta herrialde horretako mendealdeko itsasertzean ezarritu joan ziren gero eta gaeldun kolono gehiago. Pixkanaka-pixkanaka beren hizkuntza hedatuz eta nagusituz joan zen, eta Kenneth MacAlpin erregeak 843. urtean piktoak eta Eskozian ezarritako gaelak batzea lortu zuenerako, erresumaren hizkuntza etorkinek ekarritakoa zen. Gaelera hau, baina, Irlandan garatzen ari zenetik aldendu zen mendeetan zehar eta, denboraren poderioz, jatorrizko enbor bakar hura ondo bereizitako bi hizkuntza ezberdin bilakatu zen. Jakin bedi idazki honetan gaelera hutsa, jatorria adierazi barik, aipatzen dudanetan, Eskoziakoaz ari naizela.

Hizkuntzaren goren aldia eta gainbehera

Gizarteko maila gorenek ere beren hizkuntzat hartuta, gaelerak XV. mendera arte iraun zuen sendo eta indartsu Eskozian, eta urrezko garaia X. mendetik XIII.era bitartean izan zuen. Garai hartan, mendealdean, uharteko jaurreria independentea zela, gaelera erabili ohi zuten gorteak, eliz eta lege-gizonak, eskribauek, historialari eta olerkariak. Harrez geroztik, ingelesak, arian-arian eta etengabe, iparmendealdeko eskualdeetara baztertu zuen hizkuntza zeltikoa; geroago, XX. mendean, hirietarako migrazioa batetik, eta guztiz ingelesez garatu zen eskolatzearen hedapena bestetik, bereziki kaltegarri gertatu zitzaizkion gaelerari.

Gaurko egoera

Mende honen hasiera-hasieran (1901. urtean) Eskozian 230.000 gaeldun geratzen baziren ere, gaur egun, bost milioi biztanleko herrialde honetan, 66.000 baino ez dago, kanpoaldeko irletan bilduta eta hiri edo populazio marduleko eskualdeetatik aldentuta, gainera. Eta, halere, gaelera hizkuntza salbatutzat hartzen du hainbat adituk aspaldi honetan. Non datza baikortasuna? Gaelerazko haur-hezkuntzan, batik bat; hurren, herri osoan zehar –Glasgow eta Edinburgon ere bai– helduentzako ikastaroak ugaltzean; eta azkenik, oro har agintariak azaltzen duten gaelerarekiko joera lagungarrian.

• **Haur-hezkuntza:** Eskozian, gaelerazko lehenengo gela-txoak laurogeiko hamarkadan osatzen hasi ziren guraso urri bezain ausart batzuek bultzatuta. Estatistikek esanda, 1985. urtean 24 hurrek besterik ez zuten ikasi gaeleraz Eskozia osoan. Hamar urte geroago, kopurua 1.500 umetakoa zen. Gaelerazko gelaren bat duten ikastetxeek antzeko hazkundea izan dute: bi

baino ez zeuden 1985ean; 1995ean, berriz, 50 inguru. Joera sendo honi jarraituz, 1998-99 ikasturtean 2.200 baino gehiago ziren gaeleraz hezitako umeak. Eskaria, hala eta guztiz ere, oso txikia da eta, batez ere, barreiatuta izanda, gelak moldatzeko baldintzek arras malguak izan behar dute. Horrela, lau ume nahikoak dira talde bat antolatzeke, normalean maila ezberdinetako ikasleek gela bakar bat osatzen dutela.

• **Bestelako irakaskuntza:** Bigarren mailako hezkuntza esparruan, ulertzekoa denez, gauzak astiroago doaz, eta orain arte lortu dena da hiru ikasgai –gehienetan Matematika, Geografia eta Historia– gaelera hutsez eskaintzea gaelerazko ikasketak eskatzen dituztenei. Goi mailako irakaskuntzari dagokionez, bai Lewis, bai Skye uharteetan, unibertsitate mailako zenbait ikastetxek gaelerazko ikasketak eskaintzen dituzte. Eskaintzak, hizkuntzari loturiko hainbat ikastaroz gain, bere baitan ere hartzen ditu Highlands-en historia eta kultura jorratzen dituzten ikasketak eta telebistakoak, guztiak gaelera hutsez. Horrez gain, mota eta iraupen guztietako helduentzako ikastaroak ere aurki daitezke gaur egun Eskozian zehar, Glasgow eta Edinburgo hirietan bereziki.

• Laguntza publikoa eta komunikabide arloa:

Gaeleraren berpizte prozesuan gurasoen ausartzia eta presioa funtsezko gertatu dira, eta administrazioaren erantzun baiezkua erabakigarri suertatu bide da gaelerazko gela-sarea finantzatzekoan. Komunikabide publikoetan gaeleraren presentzia bermatzeko joera ez da, haatik, hain irmoa izan. Dena den, une honetan Eskoziako BBC-k eta Grampian Telebistak ia egunero pantailaritzen dute gaelerazko saioren bat edo beste, eta irratian BBC-ko *Radio nan Gaidheal*-ek (Gaeldun Irratia), oso zerbitzu mesedegarriaz, gaelerazko uhin basamortua arintzen du egunez egun eta ordu askotxoz.

Prensa arloa, aldiz, ez dago hain ondo; hala ere, aurten hasita dugu *West Highland Free Press* egunkariak plazaratutako *An Gaidheal Ùr* (Gael Berria) gehigarria, hamasei orri dituen hileko gehigarri berezia. Horrez gain, kolaborazio batzuk ere irakur daitezke han-hemen.

Ez nieke lerro hauei bukaera eman nahi *Comunn na Gàidhlig* (Gaeleraren Elkartea) aipatu gabe; batetik, egungo egoera baikorra lortzeko protagonismo itzela izan duelako, eta, bestetik, hizkuntza zaharrari gaurkotatzea itzuli gura zioten zale askoren ahaleginak eraginkor bihurtu dituelako 1984a ezker, urte hartan jaio baitzen. Elkartek, une honetan, tinko dirau gaelerari legezko babesa eta egonkortasuna emango liokeen “Segurtasun Estatusa” erdiesteko Eskoziako Parlamentu berrian.

“Bost milioi biztanleko herrialdean 66.000 gaeldun baino ez dago”

Fede Jiménez



Mundua on line

www.admiweb.org

Administrazio publikoei buruzko webgune interesgarri honetan informazio zabala dago. Erakunde eta organismo publikoen zerrenda luzeaz gain, legedia, oposaketen gaineko argibideak, bekak eta diru-laguntzak, aldizkari ofizialak, zergak, eta abar kontsulta daitezke bertan. Eztabaida-taldeak ere badaude, baina agian zerbitzurik aipagarriena hauxe da: administrazio publikoei buruz egunkarietan argitaratzen diren berriak biltzen ditu egunero, eta nahi izanez gero, posta elektronikoz bidali ere egiten ditu.

Luis Elizondo
luis-elizondo@ivap.es

HABEren kurrikulu berria

HABE kurrikulu berria prestatzen ari da. Kurrikulu berriak lau maila izango ditu, horietatik lehenengo hirurak (hau da, EGA artekoak) prest dituzte dagoneko, eta laugarrena 2000-2001 ikasturterako izatea espero dute. Irakaskuntza-metodologia aldatu egiten da kurrikulu honekin, eta orain testua hartzen da oinarriztat, izan ere bera da hizkuntza-sistemaren unitate komunikatiboa. Ezagutza eta erabilera uztartu nahi dira horrela.

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna izango da

Aurten, eta Eremu Urriko Hizkuntzei buruzko VII. Nazioarteko Biltzarraren inguruan, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da abenduaren 3an Bilbon. Euskararen eguna 1949. urtean jarri zen abian Ipar Euskal Herrian eta Ameriketako euskal etxeetan. Ohitura hori galduz joan da, eta orain, euskal etxeek eta beste talde batzuek eskatuta, egun hori berreskuratuta nahi izan da.

Zuzenean: herritarrei informazioa emateko zerbitzua

Eusko Jaurlaritzak *Zuzenean* zerbitzua sortuko du herritarreki-harremanak sendotzeko asmotan. Zerbitzu berriak eginkizun ugari izango ditu, besteak beste: informazioa, harrera zerbitzua, espedienteen egoerari buruzko argibideak, argitalpenen salmenta, aurretzako zitak eta abar. Zerbitzuaren telefono-zenbaki bakarra egongo da Euskal Autonomi Erkidegoko lurralde guztietarako: 012. Arintasuna, fidagarritasuna, erantzuteko gaitasuna eta herritarrenganako hurbiltasuna dira zerbitzu berri honen kalitatea bermatzeko zutabe nagusiak.

Eusko Jaurlaritzaren egitasmoa informazioaren teknologiak garatzeko

Eusko Jaurlaritzak plan berezi bat aurkeztu berri du informazioaren teknologiak gizarteratzeko. Egitasmoaren bidez hainbat helburu bete nahi dira: ordenagailuak eskoletara eraman, herri txikietan telelan-zentroak sortu, eta informatika alorreko enpresei diru-laguntzak eta laguntza logistikoa eman.

Etorkizunean, Jaurlaritzako sail bakoitzak bere urteroko aurrekontuaren %5 erabiliko du informatika eta telekomunikazioak garatzeko, hori guzti hori Euskadiko enpresen lehia-kortasuna bermatzeko, eta enpresa horiek informatikari buruz duten pentsamoldea aldarazteko. Helburu horiek lortze aldera, fundazio bat ere sortuko da eta berak koordinatuko ditu ekintza guztiak.

Auzitegi Nagusia kausak euskararen arabera banatzearen aurka

Ezagunenez, orain arte epaitegietara iristen ziren auzibideak bi irizpideren arabera banatzen ziren epaitegien artean: aritmetikaren arabera eta espezializazioaren arabera. Hori ikusita, Justiziako Hizkuntz Normalkuntzarako Erakundearen arteko Batzorde Instituzionalak proposatu zuen auzibideak hizkuntzaren arabera ere sailkatzea, eta horrela, euskaraz tramitatutako kausak epaile euskaldunek hartuko lituzkete eta ez litzateke itzultzailerik beharko epailetak euskaraz egiteko. Nolanahi ere, Auzitegi Gorena aurka agertu da, bere ustez banaketa berria Konstituzioaren kontrakoa baita.

Bestalde, Usurbilgo udalak EAeko Auzitegi Nagusiari egindako eskaerari erantzuteko, Auzitegi Nagusiak adierazi du gazteleraz soilik komunikatuko dela udalekin, eta kasuan kasuko udaleko itzultzaileari dagokiola testuok euskaratzea.

Gora jotzeko errekurtsua

Errekurtso arruntaren ordezkoa da hau, eta erabiliko dugu baldin eta ebazpenaren edo egintzaren egileak goiko organo bat badu, beti ere organo horrek eman beharko duela erantzuna. Dena dela, arau batean ezarrita balego egintza edo ebazpena eman zuen organoak administrazio-bidea amaitzen duela, ezingo genuke errekurtsu-mota hau aurkeztu. Ikusten duzuenek, gora jotzeko errekurtsuaren eredu eta berraztertzeke errekurtsuarena (aurreko zenbakian argitaratutakoa), berez, oso antzekoak dira (ez, ordea, beren edukia); hala ere, biak aurkeztuko dizkizuegu, errekurtsu-eredu guzti-guztiak izan ditzazuen.

GORA JOTZEKO ERREKURTSOA

Nori:.....

.....

ERREKURTSO-EGILEAREN DATUAK

Izen-abizenak:

Nortasun-agiria:

Helbidea:

Telefonoa:

ZEIN EBAZPENEN AURKA

Bere garaian ebazpen honen berri izan nuen:

Ebazpenaren ezaugarriak

Noizkoa:

Organo erabakitzailea:

Erabakitakoa:

Espediente-zenbakia (*hala badagokio*):

Baditug alegazioak ebazpen horren aurka jotzeko; hain zuzen ere, ondoren adierazten ditudanak:

ALEGAZIOAK

Lehena

.....
.....

Bigarrena

.....
.....

Hirugarrena

.....
.....

ESKARIA

Horrenbestez, 30/1992 Legearen¹ arabera (114. artikulua), gora jotzeko errekurtsu hau aurkezten dut ebazpenaren aurka, agiri honetan adierazitakoa onartzeko, eta, horren ondorioz, aurka egindako ebazpena *deuseztatzeko/era honetara aldatzeko*:

.....

.....(e)koaren(a)

Izenpea

Izen-abizenak

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

Oharra: inprimaki hau eta beste batzuk liburu honetan bildu ditu HAEEK orain dela gutxi: *Administrazio eta Prozedura Legea (30/1992) eta inprimaki-ereduak*.



Ramon Saizarbitoria:

“Euskal literaturaren normalizazioari irakurtzeko plazerra falta zaio”

Arrapaladan harrapatu genuen Ramon Saizarbitoria, hitzaldi bat ematetik ateratzen ari zela. Gaurko errealitateaz mintzatu zen entzuleen aurrean, eta hori buruan ekin zion elkarrizketa honi. Euskararen eta euskal literaturaren bilakaeraz hainbat ideia plazaratu ondoren, galderak egiteko tartetxoak egin zigun. Berak esan zuenez, zaila egiten zaio, oraindik ere, bere burua idazletzat hartzea. Harritzekoa, 30 urte pasa baitira *Egunero hasten delako* argitaratu zuenetik. Denbora horretan, birritan irabazi du Kritikaren saria, eta bere liburu bi gazteleratu dituzte.

Zein da hitzaldian errealitateari buruz azaldu duzun gogoeta?

Errealitateari aurre egiteko zailtasuna daukagu. Errealitatea ez zaigu gustatzen, eta ez da pozik egiteko modukoa ere. Orain dela 20 urteko egoerarekin konparatuta, oso aurrerakada handia egin dugu, baina euskaldunak galtzen ditugu oraindik urtero; eta ez da horrelakorik gertatzen hizkuntza “normaletan”. Hau da, gero eta euskaldun gehiago gara, baina kenketa bat egin behar dugu: irabazten ditugun eta galtzen ditugun euskaldunen arteko kenketa, hain zuzen ere.

Askotan jarrera baikorra daukagu. Adibidez, gure liburuen itzulpenekin harro gaude; gure liburuak kanpora ateratzen direla ematen du, eta ez gara konturatzen batez ere zera ari dela gertatzen: euskal nobelak erdaratzen direla Euskal Herriko erdaldunek irakur ditzaten, zeren eta gure herritar asko irrikitan baitzeuden euskal literatura ezagutzeko. Beraz, positibotzat jotzen den datu bat, azken finean, bi gauza dira: alde batetik, gure ahuleziaren seinalea; eta, bestetik, horri aurre egitearen ondorioa. Horiek dira paradoxak.

Nola ikusten duzu euskararen bilakaera?

Euskara normaltzen den neurrian, euskararen profesionalak dauden neurrian, eta funtzio publikoan euskara eskatzen den neurrian, iruditzen zait galtzen ari garela euskararekiko atxikimendua. Horrekin guztiarekin hainbat jarrera aldatzen dira, adibidez, euskararen balio sinbolikoa galtzen da. Nik proba egin dut. Bretxako azokara joaten nintzenean, baserritarrekin euskaraz hitz egiterakoan lortzen zenuen halako harreman berezi bat, eta pentsa zenezakeen: “ni ez naute hain erraz engainatuko, ezta?”. Ilarrak hemengoak ez baziren, baserritarrak esango zizun: “hauek ez dira hemengoak”, euskararen mundua txikia zelako. Orain,

txaketarekin ikusten naute, eta ez didate barkatzen. Beno, hauek bromak dira... Esan nahi dudana da hor kualitatiboki zerbait aldatu dela. Hori ona da, eta normalak bihurtzen ari garelako gertatzen da. Baina, kontuz!, oraindik ez baikara hain indartsuak. Balio sinboliko hori oraindik ere behar dugu: babes ideologikoa beharrezkoa da. Lehen nazionalismoak babesten zuten euskara. Nire irudiko behintzat, euskarak, nazionalismoari esker irau du batez ere. Orain atxikimendu etikoa galtzen

den neurrian, arriskua dago nazionalismoak ez ote duen guardia jaitziko. Gerta daiteke nazionalismoak ez izatea euskararen beharrik lehen izan zuten bezala; eta orain ikusteko dago ea euskarak behar duen nazionalismoa edo beste zerbait zabalagoren esku jarri behar den... Nolanahi ere, hori guztia positiboa da, aurrera joatearen arazoak baitira.

Zer behar du orain euskarak?

Euskara Euskal Herrian ez da frantsesa Frantzian bezalakoa. Gaur egun gure ereduak, gure eskemak behar ditugu; eta nik uste dut hori ere literaturan gertatu behar dela, eta, dudarik gabe, komunikabideetan. Telebistan kontuan hartu beharko litzateke mundu guztiak dakiela gazteleraz eta, beraz, alferrik dela adierazpenak bikoizten ibiltzea. Ia denok gaude fikzio horretan, eta honez gero ez dakit kome-ni zaigun fikzioak egitea.

Orain, ofizialtasuna lortzeko, gazteleraz dagoen guztia behar dugu euskaraz: aldizkari ofizialak... denak euskaraz. Baina esfortzu hori agian errentagarriagoa litzateke beste zerbaite-

tan, itzultzaileak bakarrik irakurtzen baitu euskaraz. Badakit kontuz ibili behar dela horrekin zeren ofizialtasuna, ofizialtasuna da, eta hori galduta, agian, beste gauza batzuk ere galduko genituzke; baina maila politikoan eztabaidatu beharko lirateke euskararen alde jarri behar ditugun neurriak. Era berean, ez dut inozente izan nahi. Herri batean, bi hizkuntza daude-

“Gure literatura arrautza bat da, oraindik ere irekitzeko dagoena, eta denek babestu dute. Kritikoak ere horretara beharturik sentitu dira”



nean, beti egoten da hizkuntzen arteko gerra eta, beraz, ez dago hori konpontzerik minik egin gabe eta krisirik gabe. Beharbada, gehiago saiatu beharko genuke euskaldunok gure arazoak zeintzuk diren azaltzen. Gure ahuleziak ez ditugu erakusten, pentsatzen dugulako bide ematen diola besteari esateko: “ikusten, euskarak ez du ezertarako balio, pasa zaitezte erdarara”. Horren beldurrez gaudenez, askotan gure kritikak isilean egiten ditugu. Noizbehinka agertzen da bat kristoren danbatekoa ematen ateari, eta hori gertatzen da min egiten digulako gure ahulezia erakustea. Nik ez dut disimulatzen nire lagun erdaldunen aurrean, ez diet esaten sekulako literatura ona dugula, ez. Esaten diet, ordea, zer-nolako zailtasunak ditugun, hori baita gure errealitatea. Dena dela, gure errealitatearen aurrean ez genuke beldurrik izan beharko, leialagoak izan beharko genuke, eta horrela, agian, hobeto ulertuko gintzuket.

Kritikak gustuko du zure lana. Zer deritzozu kritika- ren zereginari?

Nik uste dut kritikoei oso lan zaila dutela Euskal Herrian, honen txikiak izanik, gertutasun handia dagoelako. Euskararekin daukagun problema bera gertatzen zaigu hemen berriro ere. Gure literatura arrautza bat da, oraindik ere irekitzeko dagoena, eta denek babestu dute. Kritikoak ere horretara beharturik sentitu dira; baina hori ez da kritikoen eginkizun bakarra, nobela interpretatzea ere beren lana da: balizko irakurleari bideak eman behar dizkio irakurketa ezberdinak egin ahal izateko. Eta nik uste dut horretan izugarri irabazi dutela.

Entziklopediak dio euskal nobela modernoaren aitzindaria zarela. Zer pentsatzen duzu oraingo nobelagintzaz?

Nik uste dut nobela nahikoa sana daukagula. Oraingo literaturak ez du zerikusirik orain dela 20 urte egiten zenarekin; azken 10-15 urteetan gora egin dugu nabarmen. Oraindik ere txikiak gara, eta euskaldun gutxi, baina ari gara estandarretara iristen, beste mailatan ere ari garen bezala. Esan dezakegu euskara baseritik atera

dela, eta nik uste dut denbora gutxian gure hizkuntzak egundoko bidea egin duela.

Baina oraindik ere, zer falta zaio euskal literaturari normalizatzen?

Nire ustez, irakurtzeko plazerra. Oraindik ere gehiegi nabaritzen da, bai idazten bai eta irakurtzean ere, ez dela normaltasun osoz egiten. Idazleak gehiegi entretenitzen dira hiztegiarekin eta gramatika arazoekin: horixe gure arazorik latzena. Begira, neu hasi, militantziagatik hasi nintzen idazten; orain, berriz, euskaraz baino ezingo nuke idatzi. Irakurleena, nik ez dakit militantzia den, baina egia da esfortzu gehigarri bat egin behar dutela.

Hainbatetan ikusi dugu idazleek ez dietela jarraitzen Euskaltzaindiaren gomendioei. Zure iritziz, zeinek izan behar du idazlearen eginbeharra? Zeinena da hizkuntza: idazlearena, Euskaltzaindiarena...?

Guztiona, dudarik gabe. Nire iritziz, zilegi da idazleak halako askatasun lexikoa izatea, izan ere askotan, litekeena da erakunde akademikoak ez daukan intuizioa edukitzea berak, eta, alde horretatik, bideak zabal ditzake eta aberastu guztiona den hizkuntza. Beraz, ni askatasuna ematearen alde nago. Gero, askatasun hori nola erabiltzen den ikusi behar da, noski: irizpideak jarri behar dira. Ni neu, nola ez dudan ezer asmatzea espero, Euskaltzaindiaren arauak ahal den neurrian betetzearen aldekoa naiz.

Zein asmo dituzu literaturan?

Nobela bat egitea espero dut, edo behintzat, nobela proiektu batekin bueltaka nabil. Uste dut hori dela orain behar dudana zerbait, orain falta dudana.

Idazle lasaia zara

Bai. Literaturaz gain, beste entrenigarri batzuk izan ditut beti. Neure burua idazletzat hartzea ere kosta egiten zait. Niretzat idazle izatea hain da gauza serioa... Edozein ez da idazle, ezta?

Baina ikastetxeetan zure lana ikasten dute

Bai, halabeharrez; baina inoiz fun-
damentuzko gauzaren bat idaztea

espero dut: ari naiz onartzen idazlea naizela. Bestalde, nik uste dut txikiak garela-eta, aprobetxatu egin behar dugula. Adibidez, ez dugu zertan idatzi merkatuaren arabera. 5.000 laguneko merkatu potentzial baten aurrean, niri zer axola zait gauza arrakastatsu bat idaztea? 1.500 irakurle edo 2.500, zer axola du? Horrek askatasuna ematen dit, eta gazteleaz egin dizkidan kritiketan hori baloratzen dute: ni ez naizela komertziala. Txikia naizelako gertatzen da hori, eta positiboa da.



Cristina Puellas
Kazetaria

Banjor jedi!

Jendeaz axola hurri duen administrazio batean lanean ari naiz, Kafkaren antzera, azken urteotan, langabezian hainbat uda higatu ondoan; konkurtsoa aurkeztu eta lortu nuen egunean, haurzaroko libertate utopikoren ametsa lurperatu nuela irudituzitzaidan, nolazpait amor emanez hots! Baina beude ene bihotzeko minak eta noan harira: betitik zozietateko izate (gauza erabilgarri soilak ote?) “ahulene-kiko” administrazioaren amoltsutasun ezak edo eskasak kezkatu eta anitzetan kexa arazi nau.

Lankideak eta bulego beilegiak inpersonalak dira, bertan lan egiten dutenak aldizka daitezke nehor ohartu gabetarik, erran nezake abotsik eta arpegi berezirik ez dugula, erantzukizun guti halatan, bai ordea bakarretan funts bako ankerkeria (bezero, zure hausteko baliabideak eskura dauzkat!). Kondatuko dizuedan gertakaria giro bitxi orokor hortan iragan zen ez hain aspaldi (eta administrazioko langile ikuskeratik azalduko dizuet):

Behin publikoaren sarrera gelara, txapela buruan zerraman gizon adindua emeki sartzen miretsi eta gogoan egin nuen: hauxe guretarik, jin bedi enegana eta zerbitzatu daite-

ke merezi duen eran (lanean, bizian ez bezala ardura, jendeekiko eta vice versa, amodio xoxola batek bulkatzen nau egiaz). Gizona alde orotara barrandan ttattit geratu zen, larruari josirik zerabilkien ardi saldoen usainak bulego gunea betetzen zuela: ene gostuz bapatean mendia hiriaren esparruan (hala erraiten da ez?) kokatu zen, lankide panpoxen sudur maxela beratze-giak kilika araziz. Nihauk, lau botzetan kantari abiatzeko gutizia neukan!

Gizonak behako bat bidali zidan eta sahetseko langilearen mahainera zuzendu zituen urratsak, agian biloz ni baino horiago zelako edo dena klixka eta dirdir, beso zein lepo inguruak urrezko girgila karioz apainduak zituelakoan. Ahoskatu zuen hitzetik beretik nabaritu nuen sufrituko nuela; “Banjor” erran moldeagatik

parean zeukan andereak ez ziola barkatuko banekien:

- Pardon?
- Banjor jedi.
- Jane konpran pa; artiküle mozie.

Gizonaren begiak sokorri bila hasi zitzaitzaidan, txapela eskuan tinkatuz, oihal ilun puska erhiekin zaintsuki plegatuz, tolestuz, bihurtituz eta purtzilikatuz. Neurasteniaren ildotik askatzen zitzaion ahurraz kasko gain pelatua torratzen zuen, buruzokoan perpaus zehatzagoak xerkatzen saiatuz eta errepikatu zuen ezinaren mugetan auhen:

- Banjor.
- Jasepa kua fer avek ze type! Oihukatuz berez nausi hierarkikoarengana itzuli zen ene lankidea, burdineriak oro zaratatsu daldaraziz. Bitartean gizonak soakoa lurrean itzaturik zeukan, txapela beti estado latzean zatxikala, errua honek bailuan. Ene erreserbatik atera nintzen orduan, lankidea nausi handiaren abisatzera joana zelako unea baliatuz:
- Jauna utz azu txapela hori bakean! Zer egin dautzu?
- O-ho-u! Badin aspaldi ez nutela Jauna deitu; eta nor hut hi?
- Zer munta du! Zer nahi zinuela?
- Behi esnadunen primaren galdegiteko papera ematan no!

Irriz karkailaka eskertu ninduen gizonak, txapel zimurdikatu buruan pausatuz (emazteak erasialdi on bat “oparituko” zion!) eta papera galtzetako gibekeko sakelean plantatuz. Kolega atzetik, nausiaz eta nausi ttikiaz segiturik hurbildu zitzaitzaidan haserre:

- Il y a de sacrés arriérés par ici! Iritzi zuen zuzendariak, lankideak handikapa handik, handikapa hemendik, gisa hortako jendeen tokirik egokiena “zaharretxea” zela azpimarratzen zuela goraki, oilo koloka antzeko bi gulugulu ozentsuren artetik.


Handikapa berdina neukan. Bazautzia zuri?



Itxaro Borda
Idazlea

Haur hizkuntzaren ikaskuntza

Haurren Hizkuntzaren Azterketarako Nazioarteko Elkarteak (*International Association for the Study of Child Language*, IASCL) Donostian egin zuen bere hiru urteroko biltzarra, uztai-lean. Munduko aditu garrantzitsuenak bildu ziren Donostiako Kursaal Jauregiaren kubo txikian, eta guk aditu horietako batzuekin hitz egin genuen. Hona hemen, gaiak: Latino-amerikako hizkuntza indigenen egoera, elebitasunaren abantailak, haurren gaitasuna hizkuntzak ikasteko, ikasketa prozesua bera, eta abar.



Brian MacWhinney
Carnegi Mellon Unibertsitateko irakaslea (Estatu Batuak)



Hizkuntzaren ikasketa prozesua unibertsala al da?

Bai, fenomeno batzuk behintzat unibertsalak dira. Haur guztiek hitzak ikasten dituzte konbinatu aurretik, baina ezberdintasunak daude hizkuntzen artean. Hizkuntza batzuek, euskarak esate baterako, besteek baino gehiago erabiltzen dute morfologia. Haurren eta beren bizimoduaren artean ere badago alderik. Alde horretatik, arriskutsua da fenomeno unibertsal bakar bati buruz hitz egitea, unibertsaltasun horren barruan berezitasunak baitaude.

Hizkuntzaren ikasketa prozesua oso antzekoa da: “aita” eta “ama”-ren tankerako hitzekin hasten da, soinu ezpain-kariekin; beste fenomeno batzuen unibertsaltasuna, ordea, konplexuagoa da: sintaxia, adjektiboa eta izena beti elkarren ondoan jartzea... Hizkuntzak antzekoak dira eta fenomeno unibertsalak badaude; hala ere, guretzat interesgarriagoak dira berezitasunak eta gizarte-ingurunea. Horregatik oraindik sakonago aztertu behar ditugu euskararen moduko hizkuntzak, Pazifiko aldekoak... Ikerketak bultzatu, jaso eta konparatzea da gure eginkizuna: hizkuntzen arteko konparaketak, haurren artekoak, gizarte-klaseen artekoak eta hizkuntzaren ikasketa prozesua ikertzea. Gure lana, hortaz, geologoen tankerakoa da: harrien museo bat eraikitzea harri bakoitzaren jatorria ezagutuz. Halaxe egingen dugu lana hizkuntzekin.



Jürgen Meisel **Hamburgoko Unibertsitateko irakaslea (Alemania)**

Hurrek errazago ikasten al dituzte hizkuntzak?

Haur guztiek –argienek zein motelenek– modu naturalean ikasten dituzte hizkuntzak, esfortzurik egin gabe: prozesu erabat naturala da. Hizkuntzak ikasteko gaitasun hori, ordea, galdu egiten da bost eta hamar urte bitartean. Hizkuntzak ikasteko erraztasuna poliki-poliki ixten doan atearen modukoa da: bost edo sei urtetik aurrera galtzen hasten da eta hamar urterekin ez da arrastorik geratzen.

Hortik aurrera ere beti ikas daitezke hizkuntzak, noski, baina modu oso diferentean. Eskolan ikasitakoak ez dira ama hizkuntzak bezain ondo hitz egiten. Kontua da, Euskal Herrian, ingurugiro elebidun batean, hizkuntza bat baino gehiago ikas daitezkeela naturaltasunez. Eskola-politikarik egokiena hizkuntzak ahalik eta azkarren ikasten hastea da, haurren berezko gaitasun hori aprobetxatzeko. Alemanian, esate baterako, hamar urterekin hasten dira bigarren hizkuntza bat ikasten, hain juxtu, gaitasun hori galtzen den adinean.

Akaso haur elebidunen hiztegia ez da izango hizkuntza horietako haur elebkarrena bezain zabala, baina hizkuntzalariok badakigu hori ez dela garrantzitsua: gramatika barruan izatea da inportantea, hizkuntzaren egitura, eta hori oharkabean ikasten dute hurrek.

Elebitasuna naturala da eta munduko biztanlerik gehienak, sortzez, elebidunak dira; jatorriz elebkar garenok gutxiengoa gara. Hala ere, elebitasunaren kontrako argudioak sarritan entzuten dira. Alemanian eta beste nazio askotan ere ozen plazaratu da “Nazio bat, hizkuntza bat” aldarria. Frantzia ere, hainbat arrazoi tarteko, urte askotan frantsesa aurrerapenaren hizkuntza izan da, eta hizkuntza gutxituak, aldiz, hizkuntza tradizionalak. Ez da gauza bera gertatu Euskal Herrian. Hemen bide txundigarria egin da elebitasunaren alde: alderdi politikoa eta zientifikoa uztartu egin dira.

Berezkoa izateaz gain, elebitasuna ona ere bada. Ikerketa batzuek diotenez, haurtzaroan hizkuntza bat baino gehiago ikasten dituztenek erraztasun handiagoa dute atzerriko hizkuntzak eurenganatzeko. Gainera, hurrek bi hizkuntza ikasten dituztenean hizkuntza horietako elebkarren ezagutza bera eskuratzen dute.

Miguel Siguan **Bartzelonako Unibertsitateko** **Psikologia katedraduna (Katalunia)**



Elebitasuna onuragarria al da haurrentzat?

Haurtzarotik hasitako elebitasuna positiboa da haurrentzat, ez die traumarik edo hizkuntza arazorik sortzen, eta hortaz, umeez ez dute atzerapenik izaten ikasketa prozesuan. Gainera, frogatuta dago elebjetan ikasi duten haurrentzat askoz ere errazagoa dela hirugarren hizkuntza bat ikastea.


Euskal Herriko elebitasuna kasu berezia da, euskara oso bestelako hizkuntza baita, latinetik ez datorrena. Gaztelaniaren eta katalanaren egitura, berriz, oso antzekoak dira. Katalunian egin diren ikerketa batzuen arabera, umeei pixka bat kostatzen zaie konturatzea bi hitzek (bata gaztelaniazkoa, bestea katalanezkoa) esanahi bera dutela. Ume euskaldunak, ordea, segituan jabetzen dira gaztelania eta euskara oso hizkuntza ezberdinak direla.

Hizkuntzen ikasketari dagokionez, hizketan hastea gertaera miresgarria da. Izan ere, oraindik ingurunea behar bezala ezagutzen ez duen izakia gai da sistema konplexu eta abstraktua mendean hartzeko. Hurrek helduen moduan ikasten dute hizkuntza, nahiz eta guraso batzuek ez dieten asko laguntzen, hurrekin halako ume-hizkera barregarri bat erabiltzen baitute.

Phil Dale
IASCLEko lehendakaria (Estatu Batuak)

Zer dela-eta, oraindik ere elebitasunaren kontrako iritziak eta neurriak?

Haurren elebitasunaren kontrako argudioak ez dira zientifikoak, politikoak baizik, izan ere batzuek pentsatzen dute nazio bat izateko hizkuntza bakar bat izan behar dela. Gaur egun frogaturik dago hurrek garrantzia sozial bereko hiru hizkuntza ikas ditzaketela elkar nahastu gabe, eta gainera, beste haur batzuek hizkuntza bakar bat ikasteko behar duten denbora berean. Gizarte batzuetan balio bereko bi edo hiru hizkuntza daude, eta hori horrela bada, haurrak ondo hartzen ditu. Hizkuntza horietako batek garrantzi txikiagoa badu gizartearen, orduan sortzen da arazoa.



Luis Enrique Lopez
San Simon Unibertsitateko irakaslea (Bolivia)

Zein da Latinoamerikako bertako hizkuntzen egoera?

Latinoamerikan 400-500 hizkuntza amerindio ezberdin daude. Indigenak Latinoamerikako populazioaren %10 inguru dira: 40 milioi lagun. Leku batzuetan gutxiengo dira, baina besteetan gehiengo, nahiz eta gutxiengo moduan tratatzen dituzten. Ketzua eta aimara hizkuntza indigenek milioika hitz dituzte: ketxuak hamabi milioi, eta aimarak ia hiru. Hala ere, gero eta hizkuntza amerindio gehiago daude galtzeko zorian, 33 gaur egun. Gizarte indigenan elebitasuna ez da inoiz traumatikoa izan; are gehiago, halako osagarritasuna sortu da hizkuntza guztien artean. Pertsona bakar batek lau edo bost hizkuntzatan hitz egin dezake han, eta

haur bat zortzi hizkuntza indigena dakizkiela irits daiteke eskola garaira. Hala ere, gaur egun oso gutxi dira horrelakoak; oso gutxi dira baita gaztelaniaz ez dakiten edo erabiltzen ez duten indigenak ere.

Salbuespen gutxi batzuk salbu, hizkuntza indigenak gatazka egoeran garatzen dira, Europako hizkuntzekin kontaktuan jartzen direnean (gaztelania, frantsesa, portugesa...). Horren ondorioz, naturala eta gizartearen funtzionamendurako beharrezkoa izatetik bitarteko egoera bat izatera pasatu da elebitasuna: bertako hizkuntzen elebakartasun edo elebitasunetik hizkuntza hegemonikoaren elebakartasunera.

Gizarte indigena gehienak ahozotasunean oinarritzen dira eta indigena askok uste dute hizkuntza batzuk hitz egiteko bakarrik direla eta beste hizkuntza batzuk, berriz, hitz egiteko eta idazteko. Gaztelaniaren eskutik iritsi zen eskola nekazal gune gehienetara eta horrek baldintzatu egiten du indigenek eskolari, hezkuntzari eta beren hizkuntzaren funtzioei buruz duten ikuspegia. Indigena askorentzat beren hizkuntzak ezin dira eskolan erabili, eta gaztelania bakarrik erabil daiteke irakurri eta idazteko. Horiek horrela izanik, indigena gehienek ustez, irakurtzen eta idazten jakitea gaztelania ikastea da.

Zorionez, hezkuntzari eta hizkuntzari dagokienean, jarrera ebanjelizatzaileak eta homogeneousatzaileak baztertu dira, eta gero eta herrialde gehiagotan onartzen dira bertako hizkuntza indigenak hezkuntza sisteman. Kulturen arteko heziketa elebiduna indartzen ari da; eta heziketa horren helburua ez da indigenen integrazioa edo asimilazioa, herrialde bat osatzen duten gizarte eta herrien artikulazioa baizik. Horregatik elebitasun gehitzaile bat bultzatzen da jatorrizko hizkuntzaren eta hizkuntza hegemonikoaren artean (azken hau, bigarren hizkuntza moduan). Ikasketa elebiduna garrantzitsua da gizartearentzat, lagungarria baita errealitate anitz bat ulertarazteko. Ama hizkuntza idazten eta hitz egiten jakin behar da, autoestimua bultzatzen baitu, eta beste hizkuntzen ikasketa errazten.

Jakes Goikoetxea
Kazetaria


Lantegiak ere urratsez urrats euskalduntzen

Tekniko onak ala euskaldunak behar ditugu? Lehenasuna produkzioak du; euskara sartzek ez du funtzionamendua oztopatuko? Gazteek egingo dute iristen direnean, guk ezin dugu. Kanean ez dugu euskaraz egiten, eta lanean hasi behar dugu? Muchos de los euskaldunes son muy euskaldunes, pero luego entre ellos hablan en castellano. Lo que está claro es que el euskera es y seguirá siendo la lengua de la enseñanza, pero no la lengua del mundo laboral. Plana borondatezkoa da; noraino iritsi borondatezkoa izanda? Komeni al da zeharo borondatezkoa izatea?

Hauek eta beste asko dira kooperatibetan langileek egiten dizkiguten galderak inkestak betetzera goazenean, erdal hiztunek zein euskal hiztunek. Galdera hauetariko asko kanean entzun dituzte, besteak komunikabideen bidez jaso dituzte, guztiak dira, ordea, guretzat guztiz arruntak. Horiek banaka-banaka aztertzen ez gara hasiko, norberak egin dezala ariketa hori eta pentsa dezala zein erantzun eman horietariko bakoitzari. Honez gero jakingo duzue lantegiak euskalduntzeko planetan egiten direla era horretako galderak, non bestela! Eta nork eta non erantzuten ditugu halakoak? Erabilera Taldeetan eta euskara eskolatan eta beste askotan banakako elkarrizketetan.

- ✓ Enpresaren irudia (errotulazioa, katalogoak...)
- ✓ Barne harremanak (euskal hiztunen arteko harremanak, bilerak, barne dokumentazioa...)
- ✓ Kanpo harremanak (hornitzaileekin eta bezeroekin)
- ✓ Hizkuntz irizpideak (langileak kontratatze politikan, informatikako programetan, dokumentazioan...)
- ✓ Langileen hizkuntz prestakuntza.

Aurretik aipatutako arlo horietan guztietan eragin nahi izaten dugu, baina enpresa bakoitzaren ezaugarrien arabera (euskal hiztunen kopurua, alfabetatu kopurua, lan mota, adina, langi-



Luze joko luke enpresetako plangintzak azaltzeko. Labur esateko, administrazioko erabilera planetako metodologia erabiltzen da lan eremuko plangintzetan, hau da, hiru fase nagusi dituzte: aurreazterketa, diseinua eta plana martxan jartzea. Hemen ere, ordea, bada bereizgarri bat: euskararen **erabilera** areagotzeko **taldeak**. Erabilera taldea pertsona multzo jakin eta iraunkorrek osatzen du, 8-10 langilek, eta ahal dela, laneko jarduera esparru bereko langileak hamabostean behin-edo ordu betez biltzen dira. Proposamenak egiteaz gain, proposamen horiek aurrera eramateko beharrezkoa den oinarritzko trebakuntza jasotzen da talde horietan.

Hainbat urtetan errotutako hizkuntz ohiturak aldatzeko pausok ematen dira talde hauetan. Hauek dira, euskara ikasten hasi diren langileekin batera, enpresetako motorrak. Hauen bidez ematen zaio sarbidea euskarari lantegiko hainbat arlotara, hala nola:

leen motibazioa, zuzendaritzaren inplikazioa, hornitzaile eta bezeroen jatorria, adina eta abar) aurrerapauso sakonagoak ematen ditugu edo gainazaletik jardun beharra izaten dugu hiru urteko plangintza hauetan.

Ezagun da, gainera, lantegietako langileek lana gogoz egin eta euskara lantegian erabilgarri dela erakutsi dutela, horren lekuko baita plangintza hauek martxan zituztenak 1996an hiru enpresa izatetik gaur egun 35tik gora izatera iritsi direla. Hala ere, une honetan gure erronka nagusia lan honi behar bezala eta ilusioz erantzutea da.

Erein, erne... geroko uzta!

Amalia Balda Etxarte
Emun Koop. E

Kaleratua



Emakume beldurgarria zen, beti ateratzen zelako garaile eztabaidetan, inoiz ere ez zuelako betarik eskaintzen gaizki egindakoaren gainean inoren azalpenik entzuteko, arazo guztiak di-da garbitzen zituelako, bazekielako irribarrea eta mehatxua erabiltzen, bere hiztegiaren *zantalza* hitzak tokirik ez zeukalako. Eta abar.

Hura hasieretan ez ei zen horrelakoa. Ikasi egin behar izan zuen oihanean bizitzen: ez baduzu nahi inork jan zaitzan, zeuk erakutsi behar dituzu hortz-haginak. Eta lanean, bestalde, jakin egin behar suge izaten (sigi-saga isilean mugitzen), loro izaten (abileziaz tar-tar-tar mintzatzen), saguzar izaten (besteren odolaz elikatzen, txurp-txurp-txurp) eta batez ere, elefante izaten (bidean aurkituriko guztia dunba-dunba zanpatzen). Ez zen ahalegintzen *lan* eta *etekin* hitzak sinonimoak ez direnik ulertzen. Senetik ateratzen zuen lan-hitzarmana aipatzen zuen edonork. Goralarría ematen zion Garizumako trikimakiaren antzera, herria zela eta hizkuntza zela, ekin eta ekin zebilen jendeak. Eta egun batean, psikologoari kontsultatu behar izan zion *errespetu* berbaren esanahia.

Berba bitan, andretxo hori nagusientzako perfumea zen, eta lankideontzako pozoina.

Gutxien espero zuenean kanporatu zuten. Ez zitzaion nahiko gertatu beldurgarria izateaz gain, argia, liraina, ausarta, atsegina, kudeatzaile aparta, diru-aurrezle hobezina eta enpresarako langile-eredu aproposena izatea. Ez. Kristal landuzko flasko fin dotorea izanik, krask egindakoan ez zuen aurrerantzean ezertarako balio izan. Haatik, bere baliogabetasunean, mundu guztiak egin zion izkin, ertz zorrotzen beldurrez. Lankideon baitan ez zen ezeztu artean harekiko izandako mesfidantza, eta ahal izatera mila aldiz adierazi izango genuen destaina, edota gorrotoa ere, lotsa bihurtu zitzaizkigun eta, besterik gabe, ezikusiarrena egin genion agur esateko egunean.

Laxokeriak bekatu larri suerta daitezke enpresa pribatuan. Lankideok horixe ondorioztatu dugu, esamesak eta airean

zintzilik geratutako datu solteak elkarri lotuz. Hona hemen gure lankide ohiaren hanka sartzeak:

Lehena, jefearen bulegoko tapizean estropezu egin eta jefearen bezero bati, kafe-kikara bat hartzen zegoela, bultz egitea. (Bezeroak traje berria zuen, Loewe-n erosia).

Bigarrena, jefearen emazteari urtebetetze-egunean lore-sorta bikaina bidaltzea; ez jefeak aginduta, bere kabuz baino. (Udaberria zen eta emazteak alergia izugarria zion lorautsari).

Hirugarrena, jefearekin kongresu batera egindako bidaiaren batean hura jipoitzea. Zartailutxo batekin jo zezan eskatu omen zion. Dirudienez, pasatu egin zen, hain gura izan zuen agindua ondo bete. (Jefea jefea da edonon, galtzontziloetan egon arren).

Laugarrena... Tira. Ospea puzteko asmakizunak ote diren gaude gu, kondairari gatz-punttua gehitzeko pasadizoak...

Nekez, baina zeri egotzi halako trakeskeria haiek guztiak, hura hain langile jator eta fina izanda?

Berak dio oraindik ez duela ulertu zergatik kanporatu duten, sufrimendu-plantak egiten ditu (ez oso sinesgarriak, egia esateko), ez du telefonorik hartzen, mundu guztiarekin haserretu da, ohar anonimoak sartzen ditu enpresako gutunontzian jefearen izena moztarrendaren batean erositako odol artifizialaz idatzita. Eta abar.

Ez du inoiztxo ere aipatzen indemnizazioa. Enpresan hamasei urte zeramatzan eta miloi-mordoa poltsikoratu omen du.

Hasi da curriculumak bidaltzen hainbat tokitara. Eta laster jasoko du baiezkua, seguru. Enpresa pribatua da eta izanen da, beti ere, kaleratuaren benetako amodioa. Mendekua maite duen amodioa.

**“andretxo hori
nagusientzako
perfumea zen,
eta lankideontzako
pozoina”**

Miren Agur Meabe

ATSEDENIK EZ... PUBLIZITATEAN

“Nere sentimendua nahi det deklaratu...” dio Kaskazuriren anaiaren bertso batek, eta neuk ere nirea nahi dut adierazi uda honetan pil-pilean egon den gai baten inguruan: Madrilgo Barne Ministerioak bultzatutako “A tope sin drogas” kanpainako leloaren itzulpenaz hain zuzen (“Atsedunik ez drogarik gabe”). Zein gehiago, zein gutxiago, oso kezkatuta agertu gara denok lelo horren ezegokitasunarekin. Bihoa lerro hauetan, beraz, nire kezka berri.

Esku artean dugun gaiari, bi alderditatik heldu nahi nioke: batetik, euskalduna naizen aldetik, eta, bestetik, batez ere, ogibidez itzultzaile naizen aldetik. Baina, egia esan, lehenengoaz ia dena esanda dago; ikusi bestela edozein hemeroteca. Zer esango dut, bada, puntu honetaz dagoeneko esanda ez dagoena?

Jorratu nahi dudana beste puntua alde tekniko-edo litzateke (handinahia ez bada nire aldetik). Itzulpengintzan diharduen edozeinek badaki –edo jakin beharko luke– hizkuntza bakoitzak bere hitz-jokoak eta figurak egiten dituela, eta hizkuntza batean funtzionatzen duen mezu batek litekeena da bestean ez funtzionatzea. Zer esanik ez olerkiak direnean. Zorioneko kanpainako leloa, jakina, ez zen olerkitxo bat edo antzeko ezer, eta ez zeukan literatura-figura berezirik; berezirik ez, baina bai konstante hartzekoa: gazteen argota. Eta horixe izan zen, nire ustez, arazoaren iturburuetako bat. Publizitateak hartzailea du xede, eta horri begira diseinatzen dira kanpainak. Horregatik, kasu honetan, batik bat gazteentzako kanpaina bat zenez, argota sartzea funtsezkoa zen efektu egokia lortzeko hartzaileengan. Baina zer eta, euskarak eduki ez horrelako hizkuntza-mailarik, edo ez behintzat gaztelaniak bezain garatuta.

Publizitateko leloak

Publizitateko leloak itzultzea ez da kontu makala. Euskaraz eman behar dugun mezua guztiz deskriptiboa bada, normalean ez da arazorik izaten (“*La mejor oferta del año*”, “*Euskaltel, lo que nos une*”...) Baina itzuli beharrekoak joko bereziren bat egiten badu (hitz-jokoa, esaera zaharrak, aldaketa fonetikoak...) zailtasuna areagotzen da. Gaurko gaiak horrelako zerbait du: argota. Gaztelaniak badu argota; euskarak, berriz, ez –non eta ez diren han-hemenka egindako saio batzuk (Napartheid, Zakilixut...)–. Kanpaina eztabaidan egon den aldian, zabaldu da euskarak gazteentzako argotik ez duez (ez bada gaztelaniaren kalko hutsa, eta, egia esan, erabili egiten da), ezin zela itzuli zati hori, eta horregatik nahastea sortu dela. Ene irudiko, euskaraz argotik ezer gutxi dagoen arren, dagokigun kasuan, baziren irtenbide posibleak, agian argotetik hurbil izan zitezkeenak: “*Bete-beteen bizi drogarik gabe*”, “*Jo ta ke drogarik gabe*”... (agian JO TA KE horrek konnotazio politikoak ditu, baina “eta” juntagailuak ere bai, eta ez dugu euskaratik hori baztertzen hasiko, ezta?)

Ez dugu ahaztu behar irudiaren gizartean bizi garela, eta irudiak pisu handia duela gauza guztietan, baita publizitatean

ere. Leloaren eta irudiaren arteko lotura, batzuetan, hain trinkoa denez, ezin apurtu. Adibidez: orain dela urte batzuk, Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Sailak kontsumitzaileen aldeko kanpaina bat egin zuen: “*Que no te den gato por liebre*”. Telebistan, leloa entzutearekin batera, animalia horien irudiak


agertzen ziren, zein bere unean. Hortaz, ezin edozein modutan itzuli, emaitzak oso lotuta egon behar baitzuen irudiarekin; eta, ondorioz, ezin aipatu beste animaliarik euskal ordainean. Gaztelaniaz hain ezaguna eta arrunta den esaera zahar horrek ez du, nik dakidala, zuzeneko ordainik euskaraz; eta, horregatik, kanpainaren leloak beste ildo batetik jo behar izan zuen gure hizkuntzan. Hego Euskal Herriko publizitate-kanpainak diseinatzen direnean, salbuespenak salbuespen, gaztelaniaz pentsatu ohi dira, eta, gero, kasurik onenean, euskaratu. Azken urteotan, gero eta iragarri gehiago entzuten dira jatorrizko hizkuntzan (batez ere koloniakoak direnak), frantsesez hain zuzen, batek daki nolako xarma-efektua lortzeko. Baina, adibidez, Coca-Cola enpresak, nahiz eta kanpainaren ildo nagusia Estatu Batuetatik jaso, seguru nago egokitzapen

nen bat edo beste egiten dutela hemengo hartzaileei hobe hel dakien. Alegia, yankeek ere aintzat hartu behar dituzte hizkuntza bakoitzaren ezaugarriak, bestela, litekeena da negozioa ukituta geratzea. Hizkuntza bati eskatzen zaiona, askotan, ezin zaio beste hizkuntza bati eskatu; are gutxiago, oso jatorri ezberdinak badituzte (esate baterako, gaztelania eta euskara). Nolanahi ere, jakin nahiko nuke nola egin zuten kontsulta.

Kontsulta egiteko modua

Izan ere, batzuetan, testua oso-osorik galdetu beharrean, zati edo atal bat baino ez dute galdetzen; eta gero gerokoa: “no... sólo nos hace falta esa frase; tenemos un amigo que sabe euskera y él nos traducirá el resto”. Ez al zaizue inoiz horrelakorik gertatu? Demagun gure gaian honelako zerbait jazo zela: “¡Oye! ¿cómo se dice en vasco A TOPE?” Eta itzultzaileak edo euskaratzaileak, buruari eragin ondoren, “atsedenik ez” esan, ez baitzitzaion beste ordainik otu. Eta arazoa hor amaituko litzateke ez balitz ondoko zatiagatik: “drogarik gabe”. Bi ukapen elkarren ondoan. Arazo horrekin askotan egiten dugu topo, eta irtenbideak eman behar izaten dizkiogu. Duela urtebete, azterketa bat euskaratzen ari nintzela, testu hau egokitu zitzaidan: “*Indica cuál de las siguientes afirmaciones NO es correcta: a)... no existe en la actualidad; b) existe pero no está vigente...*” Gaztelaniaz mahairatu zitzaidan arazo berbera planteatu zitzaidan euskaraz: bi ukapen elkarren ondoan, baieztapena sortzen dute, edo, gutxienez, nahasmena.

Beste posibilidad bat da, beharbada, zati bat barik oso-osorik itzultzeko eskatzea. Euskaratzaileak aukera batzuk baloratu zituen, eta egia bada kazetaria izan zela, hark ondo jakingo zuen zein inportante den publizitate-kanpainaren ezaugarri guztiak errespetatzea, baita baliabide grafikoak ere.



Baliabide grafikoak

Argitaratu ziren postalei begiratzeko badiagu, gaztelaniaz SIN preposizioa letra handiz eta lodiz dago idatzita. Euskaraz, ordea, zein loditu? Asmatutako “atsedenik EZ”ek aukera ematen zuen SIN preposizioaren izaera murriztailearen efektua lortzeko; alegia, SIN preposizioa belztu. Beharbada, euskaratzaileak, sormenaren zurrumbiloen sartuta, ez zion gehiegi erreparatu mezu osoari, eta bai baliabide grafikoaren erabilerari. Hortik despista? Batek daki.

Beste baliabide bat komarena da. Gai honi buruzko lehenengo informazioa irriti bidez entzun nuen, gaztelaniaz, eta egia esan behar badut, hasieran ez nuen akatsa antzeman, lokutoreak eten-txo bat egin zuelako esaldiaren erdian; eta ahozko eten guztiak ez dira luzera berekoak. Sortu zitzaidan zalantza dela-eta, jatorrizko informazioa eman zuen egunkarira (DEIAra) jo nuen. Zer eta han ere azpituak honela zekarren: “Atsedenik ez, drogarik gabe”. Nire ustez, koma jarri izan balute, nahasmena disimulatuago geratuko zatekeen, nahiz eta, hala ere, testu argia izan ez. Eta berriro zientzia fikzioa. Leloa itzuli zuenak pil-pilaldi osoan ez du bere burua zuritu (agian gauzak ez nahastearren), baina ez al zuen horrelako zerbait idatziko, eta publizitate-irizpideak direla-eta kendu? Behin enpresa batentzako errotulua itzuli behar izan nuela, euskal ordaina eman nienean, enpresatik esan zidaten luzeegia zela eta nahitaez laburtu behar nuela. Guri dagokigun kasuan, ez al zen horrelako zerbait gertatuko? Batek daki, baina.

Lege-arauen zatiak

Lege eta dekretuen zatiak izendatzeko batasunik ez dago euskaraz. Administrazio Hitzegian ere ez zen lortu ordain bakarra, bitasuna baizik. Erakunde batetik bestera ezberdin erabiltzen izan ditugu, eta erakunde berberaren barruan ere garai bakoitzean modu batean erabili izan dira askotan; gorabeherak eta aldaketak egon dira denbora aurrera joan ahala. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian somatzen da betibatekotasun eta koherentzia handiena. Hala ere, administrazio osoaren euskara-batasuna bilatu nahirik eta beste erakunde batzuekiko hurbilketa lortu guraz, lehen urratsa norberak ematea ona izaten dela ikusirik, eta, batik bat, Administrazio Hitzegian behin-behinekoz daukagun bitasuna gaintzeko, urteotako gure erabilera aldatzeko eta beste batzuegana biltzeko erabakia hartu dugu. Gonbita da gainerakotzat, jarrera honetara bilduta, hurbilketa saioak egin ditzagun.

Bestalde, luxu handiko hitz-galtze barkaezina litzateke, behin-behineko zerrenda horretan (Administrazio Hitzegian) agertzen den bezala, tradizio oneko bi hitz (‘artikulu’ eta ‘atal’) lehian jartzea, baina eremu semantiko honetan inongo tradizioz ez daukan beste bat premia barik esparru honetara gonbidatzea (cf. ‘seksio’, Fisikan edo Marrazkigintza Teknikoan erabili dena, baina legeen zatiak izendatzeko oraintsu-oraintsu agertu zaiguna).

Barkaezina litzateke baita kontzeptu ezberdinak bereizteko balioko liguketen hitzak (‘titulu’ eta ‘idazpuru’) espezializatu beharrean, sinonimotzat jo eta aukera hori galtzea ere; jakina, beti bezala, sustrai eta tradizio gutxiagoko erdal (gaztelaniazko) hitzen bat ekarritik hark utzitako tokia betetzera.

Era berean, izendatu beharreko kontzeptuei begiratu beharrean, gaztelaniaz kontzeptu horiei jarri dieten izendapenari begiratzea ere hizkuntza-menpekotasun jasanezina litzateke. Alegia, gaztelaniaz, sarri askotan, hitz bera erabiltzen da kontu ezberdinak izendatzeko (cf. *párrafo* ‘paragrafo’ eta ‘lerroalde’ adierazteko),

Dena ez da txarra izan

Gertatuak gertatu eta entzunak entzun, leloaren itzulpenean egingandako hanka-sartzeak zenbait onura ere ekarriko du: a) agerian gertatu da kontrol-eza, eta hortaz, kontrola ezartzeko beharra (zuzentzaileak, idazlariak, erredaktoreak...); b) aurrerantzean, arreta berezia jarriko da horrelako kanpainetako leloetan –eta hedaduraz edozein testutan?–; eta c) publizitate-testuak egokitzeko beharra.

Eta erakunde ofizial bateko itzultzailea naizenez, eztabaida-aldian kaleratu zen iritzi bati buruzko aburua eman nahi dut. Izen handiko itzultzaile batek, ez dakit zeren eraginez, barrengarri utzi nahi izan zituen, antza, administrazioan gabiltzan itzultzaileak: “*Funtzionari itzultzaile-edo amateurren batek lepoaren bueltan ibiliko ditu atzamarrak*”. Berriro ere, gaitz guztien errua funtzionarioena. Betiko topikoa. Itxura denez, administrazioan aritzea nahikoa da gauzak txarto egiteko eta ezjakinak izateko. Dirudenez, lan sakonagoa eta zientifikoagoa egiten da administrazioetik kanpo, barrukook ez garelako horretarako gai. Ez dut uste kritika hori bidezkoa denik, are gutxiago administrazioaren estiloa aldatzeko ahaleginak egiten ari garen garai honetan.

Horixe da nire iritzia, inor zuritzera ez datorrena, baina, aldi berean, komunikabideetan izan den eztabaida uda-sugezalean beste ekarpen bat egin nahi izan duena. Gauzak, azken batean, ez dira beti zuriak edo beltzak izaten; grisak ere badira.

Edorta España

HAEEn Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko itzultzailea

eta, beste askotan, hitz asko, kontzeptu bera emateko (*párrafo*, *número*, *punto*... ‘paragrafo’ adierazteko). Euskarari beregain jokatzeko utzi behar diogu horrelakoetan, eta horretarako hitzunak dira –geu, erabiltzaileok, gara– erne ibili behar dutenak, konturatu gabe gaztelaniaren atzaparretan ez jausteko, honelako menpekotasunak zailak izaten baitira atzitzen.

Hortaz, hona hemen HAEEn egin ditugun proposamenak (EHAArako arau bihurtu direnak), denok izan dezagun horien berri eta gure lanetan erabil ditzagun:

Titulu: ehun artikulua baino gehiagoko lege edo araudia banatu behar den zati nagusietako bakoitza. Lehen: idazpuru/titulu (*título/titre*).

Kapitulu: tituluak banatu behar diren zati nagusietako bakoitza. Lehen: atalburu/kapitulu (*capítulo/chapitre*).

Atal: kapitulu luzeak, hamabi artikulua baino gehiagokoak, banatu behar diren zatietako bakoitza. Lehen: sail/sezio (*sección/section*).

Artikulu: lege edo araudiaren oinarritzko zatia, bat zenbakitiki hasi eta azkenekora korrelazioan daudenetako bakoitza. Lehen: artikulua/atal (*artículo/article*).

Paragrafo: artikulua zati zenbakiduna. Lehen: azpiatal/lerroaldi (*apartado, párrafo, punto/paragraphe, point*).

Idatz-zati: paragrafoaren zatia (letraz, marraz edo, berezia). Lehen: idazati/puntu (*apartado, letra/point, sous [x]*).

Aurrekoarekin loturik, beste bi hitz hauek ere mugatu ditugu:

Idazpuru: arauen zenbakia, maila (legea, dekretua...), eguna, emailea, edukiaren azalpena eta beste bildurik, dena delako arauaren hasieran izen gisa jartzen den lerroaldea. Lehen: epigrafe/idazpuru (*título/titre*).

Lerroalde: puntu nagusitik (beste lerro batera bidaltzen duena) puntu nagusira bitarteko testu-multzoa. Lehen: lerroalde/lerroaldi (*párrafo/paragraphe*)

Itzulpen Zerbitzu Ofiziala

Baztertu al dezakete liburu elektronikoeak liburu tradizionala?

Gaur egun ere paperezko orrialdeak datozkigu burura liburuaz ari garenean. Gehienontzat, noski, oso zaila litzateke besterik bururatzea. Urteek aurrera egin ahala, seguruenik, liburuaz dugun irudia aldatu egingo da, eta hitz hori entzuten dugunean, materiala ez den gauza batekin ere lotuko dugu berehala. Oraingoan, dena den, paperezko euskarria nagusitzen zaigu buruan. Liburu elektronikoa poliki zabaltzen ari da, batez ere sormen-liburuei dagokienez (saiera, literatura...). Ikusteko dago, bada, etorkizunean papera zokoratzea lortuko duen ala ez.



Pruden Gartzia Azkue Bibliotekako zuzendaria

Jakina denez, mundu honean aurrikuspenik zentzuzkoenak ezerezean gelditu ohi dira, eta zaila da asmatzea biharamuneko eguraldia bera ere. Baina gaur eta hemen esan dezakegu epe erdira papera ez dela desagertuko, eta hala balitz, haren desagertzea zerikusit

handiagoa izango du munduko oihanak galtzarekin ordenagailuekin baino. Ohitura indartsua da oso; badirudi oraingoan neke pairaezina dela eleberri bat ordenagailuko pantailan irakurtzea; areago, lana dela-eta egunero-egunero hainbat ordu zorioneko tramankulu horren leioari begira begiak galdu beharrean dagoenarentzat.

Kontrako zantzurik ere bada. Horrela, gaur egun milaka aldizkari zientifiko (kimika, medikuntza, biologia eta abar) posta elektronikoen bidez banatzen dira; eta bestelako argitalpen elektronikoenak ere gero eta ezagunagoak ditugu (egunkari, hiztegi, entziklopedia, liburu, eta abar). Badirudi hurrengo urteetan horrelako produktuek igoera esponentziala izango dutela: moda, kostuen merkatzea... nahi duzuna. Hor daude. Baina esatea tristea bada ere, nago Amazonian zuhaitz bat zutik gelditzen den bitartean, gizaki ziztrinok ez diogula paperearen kontsumoari galgarik jarriko. Ea oker nagoen.




Javier Gogeaskoetxea Euskadiko Editoreen lehendakaria

Oro har, uste dut paperezko formatoan argitaraturiko liburuak ez direla sekula galduko: oso zaila ikusten dut hori. Hain zuzen ere, eleberri, narratiba, saiakera, ikas-liburu eta gisako beste genero askoren kasuan, liburu elektronikoenak ez du paperezko inprimaketaren tokia hartuko. Bestela gertatzen da, ordea, erreferentzia-liburuen kasuan (hiztegiak, entziklopediak, estatistika-liburuak...), horietan guztietan euskarri elektronikoa papera baztertzen hasia baita. Bi arrazoit nagusi daude horretarako: batetik, erreferentzia-liburuetan euskarri elektronikoa erosoagoa delako erabiltzailearentzat; eta, bestetik, merkeagoa delako. Nik ez dut uste euskarri elektronikoenak papera zokoratuko duenik, epe ertainera behinik behin. Are gehiago, biak elkarrekin biziko dira eta, sarri askotan, elkar osatuko dute.

Gorka Arrese Susa argitaletxearen arduraduna

Ezin jakin zein izango diren euskarri elektronikoen mugak. Paperearen mugak ezagunak dira, bistan da; baina euskarri elektronikoenak eskaintzen dituen baliabideak hain bizkorak eta zabalak direnez, gaurko liburu mota askok eta askok paperezko euskarriari utzi, eta euskarri elektronikoen alde egingo dute.



Hala eta guztiz, literatura paperean irakurtzea erosoagoa da oraindik (aldean ia noranahi ere eraman baitezakegu, ur azpira izan ezik); oso aproposak dira paperearen neurriak, esate baterako, eleberrientzat; ukimenezko (eta usaimenezko) plazerra eskaintzen digu papereak; begiak ez dira hainbeste nekazten; eta objektuak berak badu xarma berezi bat (eta bereziagoa bihurtuko dute idazleek eta editoreek, euskarri elektronikoa nagusitzen doan heinean).


Paperezko euskarriak (eta kulturak) ez dio ez muzinik ez gutxiespenik egin baliabide elektronikoiari: testuak konputagailuz konposatzen dira, idazleek konputagailuz idazten dute, inprimaketa digitalak gero eta indar handiagoa du... Eta, zer esanik ez, salmentak: elektropostaz erositako paperezko liburuak bilioitako etekinak ematen ari dira: ikus, adibidez, www.amazon.com. Euskal argitaletxeak ere hasi dira bere webguneak sortzen; ikus, adibidez, www.susa-literatura.com: liburutegi txiki bat bihurtu da, eta noizbait handi ere bilakatuko da.

Arazoa ez datza euskarrian, hau edo bestea hautatzean, baztertzean, ordezkatzean, desagertzean... Arazoa analfabetismoan datza, gero eta analfabetismo era berriagoak sortzen ari baitira ustez alfabetaturik gaudenon artean.

Antonio Rodríguez de las Heras

Madrilgo Carlos III Unibertsitateko Humanistika, Dokumentazio eta Komunikazio Fakultatearen dekanoa

Lehenik eta behin, liburu elektronikoari buruz ari garenean bi maila bereizi beharrean gaude: batetik, liburu elektronikoak liburu birtuala den aldetik, hau da, liburu mende askotan ezagutu dugun moduan ahalik eta hoberean islatzen duena. Hainbat periferikoren bidez, liburu tradizionalak dituen abantailak (irakurgarritasuna, batetik bestera eramateko erraztasuna...) bermatzen ditu teknologiak. Bestetik, eremu digitalean kokaturik, liburu tradizionalarekin zerikusirik ez duen liburuak daukagu. Liburu biguna litzateke hau, orrialderik gabekoa, kinestesiaren gaitasuna lukeena, poliedrikoa, liburu tradizionalak dituen lotu-retatik aske.



Liburuaren balizko etorkizunaz jarduteko, eragile guztiak (idazlea, editorea eta irakurlea) aztertu beharko genituzke. Bistan baitago, horiengan guztiongan izango dutela eragina aldaketek. Nire ustez, sormen-liburuetan (saiakera, eleberria...) dago gakoa. Ikusteko dago oraindik nola erantzun dieten liburuok teknologia berriei, hein handi batean, eragileek ez dituztelako ezagutzen teknologia horiek. Bestalde, informazio-liburuak, liburu zientifikoak eta antzekoak gero eta gehiago argitaratzen dira euskarri elektronikoan.

Baina liburu tradizionala galduko ote den erantzuteko, historian zehar gizakiak ikusi dituen aldaketak eta berrikuntzak aztertu beharko lirateke. Eta agerian dago berriak ez dakarrela ezinbestez zaharraren desagertzea. Sarri askotan, ordea, berria denak berpiztu eta bideratu egin du zaharra. Hortaz, ezinezkoa da orain esatea liburu tradizionala zokoratuko den ala ez; garbi dago, dena dela, beste itxura eta aukera batzuk ezagutuko dituela epe ertainera.

Javier Díaz Noci EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien irakaslea

Liburu elektronikoak, ohiko (inprimaturiko) liburuaren ordezkari eta osagarri? Hor al dago koska? Baliteke. Momentuz, pare bat gauza: liburu elektronikoak egon badaude eta badute alderik liburu inprimatuekiko. Beste gauza bat ere argi dago: liburu elektronikoak ez

da oraindik bere ahaide nagusiarengandik aldentu, ez du askatasunik lortu.

Liburu elektronikoak, hala ere, badu ezaugarri berezkorik. Lehena, zer esanik ez, atomoek ez baino byteek osatua da; materiagabea da, beraz. Ez da objektu fisiko bat, gauza bat (salbu euskarri fisikoan dagoenean, CD-ROM batean adibidez), eta ez da ugaltzeko eta zabaldu behar bere barruan duen edukia jakinarazteko. Sare telematikoaren bitartez barreiatu daiteke, eta horrekin, espazioaren eta denboraren mugak hausten dira, nolabait. Editorearen zeregina aldatu egingo da: liburuaren taxuketaz eta promozioaz arduratuko da, ez inprimaketaz eta zabal-kundeaz. Kulturaren transmisioarekin zerikusia duten batzuk, hortaz, galtzeko zorian daude. Bestalde, liburutegien betebeharra eta izaera ere aldatuko dira; hemendik aurrera ez dira biltegi fisiko hutsak izango: Alejandriako liburutegitik Babelgo liburutegira goaz.

Beste ezaugarri bat multimedia da, edo izan daiteke, testuz eta beste gauza batzuek osaturik: soinuak, irudiak, sekuentziak, hiru dimentsioetako gauzak, datu-baseak... Robert Darnton historialariak esan duenez, liburu elektronikoak estratu batzuetan era daiteke, diskurtsoetik dokumentaziora, eta handik irakurlearekiko elkarrekintzara (edo beste egileekikoa ere, eta horrela egilearen zeregina ere aldatuko da edizio digitalean). Horrenbestez, testuak (diskurtsoak) ez dira luzeak izango, sakonak baino. Ezaugarri horiek guztiak direla-eta, edizio elektronikoak egokia izan daiteke zenbait arlotarako: lehenik eta behin, testu akademikoak zabalteko, izan ere testuok gero eta berezituagoak dira, eta gero eta garestiagoak; eta, bigarrenez, irakurle gutxiko hizkuntzetarako.

Kirmen Uribe Idazlea

Ez nator bat George Steiner eta enparauen ikuspegi apokaliptikoarekin. Ez dut uste liburuak desagertuko denik, eta hala balitz ere, bestelako irakurketa modu atseginago bat lortuko delako izango da. Edukia da muntazkoa eta ez zer modutan heltzen zaion irakurleari. Esan nahi dut liburuetan

agertzen dena beste era batera agertzeak ez duela azkenean garrantzi handiegirik. Nire aburuz, benetako arazoa liburuan baino liburuaren beraren merkaturatze-moduetan datza. Alegia, literaturarentzat ez dira inolaz ere osasungarri, liburu formatuari eutsita, liburuaren beraren inguruan sortzen ari diren dinamika berri horiek: gutxi batzuen eskuetan geratzen ari diren liburu-denda eskerga horiek, saldo hutsa diren liburu-artefaktu horiek, eta oro har liburugintzan ezarri diren merkatuaren lege zorrotzak. Esan nahi baita, gaur egun oso zail luketela Joyce-k eta Rimbaud-ek beren burua aurrera ateratzeko, hilabete gutxiren buruan beren liburuak merkatu-sare handietatik at egongo bailirateke. Alabaina, eta paradoxikoa eman arren, teknologia berrien agerpenari esker literatura-sistema handien bazterrean bizi zirenen independenteen saloi horiek bere tokia izan dezakete interneten bidez. Gauza interesgarri berritzaile asko sor daitezke sare barruan, eta ez hainbeste liburuaren ohiko merkaturak. Ez dakit.

Dena dela, argi dago denborari bidea egiten utzi behar zaiola, gure kulturari dagokionez (eta munduan zehar beste hainbesteri) aldaketa ikaragarriak gertatu izan baitira oso denbora gutxian. Atera kontuak gure aitona ez zekiela ez irakurtzen ez idazten eta ederki asko moldatzen zela bere garaiko gizartean. Gure gurasoek liburuaren kultura ezagutu zuten eta guk teknologia berriena. Hiru gizalditan gertatu da hemen munduan mende askotan jasorikoa.



Lutxo Egia
Kazetaria

LANA OSASUNA DA. GORA...

Dudaezina da osasuna, osasuna izatea, nahitaezkoa dela lan egiteko. Osasuna kaxkartzearen seinalerik agerietako bat lanik egin ezina da; horregatik, osasun-zerbitzuen betekizunetakoa da, “baja”ren bidez egiaztatzea osasun-egoerak ez diola lan egiten uzten langileari.


Paradojiko da, bestalde, lagunak, lanerako osasuna beharrezko duela eta lan egitea nahitaezko zaiola –ekonomikoki, bere beharrak ase ahal izateko eta, psikologikoki, bere nortasuna sendesteko–, osasuna galtzea lanean.

Bi eratako zerikusia dute, beraz, osasunak eta lanak euren artean.

- osasuna beharrezkoa da lan egiteko.
- lana kaltegarri izan daiteke osasunerako.

LAN PATOLOGIA: LANBIDEKO GAITZAK ETA LANAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GAITZAK

Lanetik sortutako gaitzak, oro har, lanak lanpostuaren ingurunean eragiten dituen aldaketen eta langilea aldaketa horietara egokitu ezinaren ondoriozkoak dira.



Aldaketa-multzo horrek zenbait patologik mota eragiten ditu; lan-medikuntzak honela sailkatu ditu patologia horiek:

- Lan-patologia, berariazkoa.
- Lan-patologia, berariazkoa ez dena.

Lehen epigrafearen barruan lan-istripuak eta lanbideko gaitzak sartuko dira. Epigrafe horretako lan-patologi mota bi horien arteko aldeak, hots, istripuen eta gaitzen artekoak, nabarmenak dira, batez ere nola aurkezten diren begiratzen bazaie: bat-batekoak dira istripuak, ikaragarriak batzuetan, ezustekoak beti; lanbideko gaitzek berriz, azpijana egiten dute, pixkanaka, etengabe. Hala ere, biak talde berekoak dira, argia eta garbia baita bietan ere zergatiaren eta ondorioaren arteko lotura, hots, lanaren eta gaitzaren artekoak. Berariazko lan-patologian **lana nahitaezko zergatia da**. Horregatik esaten zaio, hain zuzen ere, **berariazkoa** patologia honi.

Berariazkoa ez den lan-patologian aitzitik, ez da horren argia, ezin da erraz erakutsi zergatiaren eta ondorioaren arteko lotura; horrelako patologietan **lana zergati parte-hartzailea da, baina ez nahitaezkoa**.

Berariazkoa ez den patologian sartzen dira “lanarekin zerikusiriko gaitzak” (LZG) deitzen zaienak; gaitz horiek gero eta garrantzi handiagoko presentzia eta eragina dute lan-arriskuei aurrea hartzeko eginkizunean eta lan-medikuntzan.

GALDERA BERRIAK, ALDATZEN ARI DEN MUNDU HONETAN

Zer dira LZGak? Zein ezaugarri dituzte beren-berenak? Zergatik dira garrantzidunak eta zergatik ditugu gero eta gehiagotan gure artean? Nolako taldeei eragiten diete batez ere?

Lanarekin zerikusiriko gaitzek, lanbideko gaixotasuntzat hartzen ez diren arren, zergati-lotura sendoak dituzte lanarekin, ez hala ere berariazkoak. Lanbideko gaitzak ez bezala, maiz gertatzen dira biztanleen artean. Lan-ingurune

faktoreen eta lanetik kanpokoen arteko elkarrekin buruzko eztabaida sortzen dute argi eta garbi; baita lan-inguruntetik kanpoko faktoreen eta langile bakoitzari eragiten dioten arteko elkarrekin buruzkoa ere.

Gaitz kardio-baskularrak, zenbait tumore-mota, gihar eta hezurretako gaitzak, arazo psikologikoak, lanbideko higadurak (Burnout), distressa, karga psikikoa, horiek guztiak osasunaren asaldurak dira eta sarriegitan LZGtzat jo daitezke. Arlo horretan garrantzi berezia lortzen du laneko eragileen eta lanetik kanpokoen arteko eztabaidak.

Gaitz hauen ugaritzea ulertzeko ezinbestekoa da aipatzea azken urteotan gertatzen ari diren aldaketa eskergak, bai lan egiteko moduetakoak bai lan-edukietakoak eta lan-moten ezaugarrietakoak.

Produktibitate-sariak, lan-txandak, laneko tentsioa eta horrelakoak arriskuzko eragileztat hartzen dira

Aldaketa makroekonomikoak:

- Globalizazioak kapitalen mugimendua ezezik, enpresa eta langileena ere eragiten du. Gaur egun lanpostua lortuko bada, prest egon behar da lana nora, hara mugitzeko.
- Zerbitzu-arloetan gero eta gehiagok egiten du lan; alderantziz, gero eta gutxiagok industriakoan.

Lan-inguruneko aldaketak:

Lan-inguruneko kutsadura batzuetan sustantzia gutxiak, baina trinko bildutakoek sortzen dute, eta, besteetan, sustantzia askok, baina mehe bildutakoek. Bigarren mota horretako kutsaduraren eragina ez da bestearna bezain berariazkoa, ezkutuan luzaroan egon ohi da eta, beraz, diagnostikatzan zailagoa da; sarritan langilearen lan-bizitza amaitu eta gero antzematen zaio gaixo dagoela, eta, horrela, oso zaila da ikusten gaitzaren eta lanaren arteko lotura.

Lanaren antolamenduko aldaketak:


Produktibitate-sariak, lan-txandak, laneko tentsioa (lanak psikologikoki eskatzen duenaren eta langileak eskaera horiek kontrolatzeko gauza ez izatearen arteko orekarik eza) eta horrelakoak arriskuzko eragiletzat hartzen dira, gaitz kardio-baskularrak eragiten dituzte-eta; bizimodu kaltegarrien aldekotzat ere jotzen dira hainbat ohitura txar sortzen dutelako: erretzekoa, alkohola edatekoa, bestelako drogak hartzekoa eta tarte libreetan egonean egotea.

Hamarkada honen azkenean Europako langileek, eskulanekoek ez beste guztiek, ordenagailua erabiliko dutela segurua da. Teknologia berriak sartzeak lan aspergarri asko baztertu ditu, baina lanpostuaren diseinu eta ergonomiarekin zerikusirik arazoak sortzen laguntzen ari da. Bestalde, informatika ia irabazi ezineko erronka da langile askorentzat –batez ere behin adin batetik gorakoentzat–, segurtasunik eza dakarkie eta autoestima galarazten die.

Lan-merkatuko aldaketak:

Emakumea ere sartu da lan-munduan; gizonen aldean lan errepikakorrek, garrantzi txikiagokoak eta okerrago ordainduak egiten dituzte. Gazteek, prestakuntza osoagoa eta hobe izan arren, oztopo handiak dituzte lan-merkatuan sartzeko. Lana askotan behin-behinekkoa da, langabezia ere hor dago. Horiek guztiek erabakitzen dute gaur eguneko lanmodua.

Lanaldi partzialeko eta aldi baterako langileak multzo dira; esperientzia gutxiak izan arren, berek betetzen dituzte arriskurik handieneko postuak eta, gainera, beren eskubideak defendatzeko berek dituzte oztoporik handienak. Eskasia hori lotu-lotua dago lanarekin zerikusirik duten gaitzekin eta istripuekin.



Laburbilduta:

Langile guztiei gerta dakieke berariazko ez den lan-patologia honetako zerbait jasan izan beharra, baina gaisotzeko arriskurik handienekoak emakumeak, aldi baterako lana duten langile gazteak eta teknologia berrietakoak, batez ere zerbitzu-sektorekoak, horiexek dira.

ZAINZA ETA PREBENTZIOA

Etiologia berariazkoa ez izateak, gaitz-eragile horiek berak langile-jendea ez denen artean ere maiz zabaldua izateak, sintomak agertu orduko gaitzak luzaroan ezkutuan jarduteak, horrek guztiak lan zaila egiten dute LZGak diagnostikatzea.

Gaitz horiei antzemateko beharrezkoa den osasun-tresna ez dagokie lan-medikuntzako zerbitzuei eta laneko arriskuei aurrea hartzeko teknikariei bakarrik; tartean izan behar dute eta parte hartu horretan Administrazioak, gizarte eragileek, zuzendari eta enpresek eta, batez ere, langileek berek.

Horien guztien partaidetza beharrezkoa da, hala berean, prebentzio-politika, hau da, gaitz horiek ezagutaraziko eta kontrolaraziko dizkigun prebentzio-politika, abian jartzeko.

Prebentzioko politika eraginkorrek hiru helburu lortu behar ditu:

- Lan-ingurune segurua eta eroso iristea.
- Lan-antolaketarekin zerikusia duen estresa gutxitzea.
- Osasuntsu bizitzeko aukeren alde egitea.

Helburu horiek lor daitezke baldin eta:

- Osasuna zaintzea enpresaren kudeaketako helburuen artean badago
- Enpresak, behar bezalako antolamendu-egiturak jartzen baditu horretarako.
- Prebentzioa, partaide diren sailen arteko koordinazioaren ondorio bada
- Langileek parte benetan hartzen badute, hots, informatuta egoteaz gain erabakiak hartzerakoan ere parte badute.



Ismael Gorostiza
Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Medikuko arduraduna



Lan Zuzenbideko Hiztegia

Alberdi, X.; eta beste
EHU eta HAEE
Bilbo, 1999
204 or.

EHUko Euskara Institutuaren ekimenez, HAEEko Itzulpen Zerbitzu Ofizialarekin elkar lanean egindako hiztegia da, lan-zuzenbidearen espezialitatekoa. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek, lan-zuzenbideko adituek, euskal filologoek eta HAEEko terminologo eta teknikariek hartu dute parte hiztegi hau egiten. 1.100 termino baino gehitxoago ditu, 204 orrialde-tan, eta horien herena UZEIko, Nafarroako Gobernuko eta Lan Harremanen Euskal Kontseiluko terminologo, teknikari eta itzultzaileekin adostu da; hain zuzen, *Lan Harremanen Hiztegian* ere agertzen diren sarrerek adostu dira (hirutik bat gutxi gora-behera, hiztegi biak ezberdinak baitira gainerakoan). *Lan Zuzenbideko Hiztegia* zuzenbideko hiztegi espezializatua da, zuzenbidearen adar bat osorik jorratzen duena. Unibertsitaterako eta administrazioarako lagungarria da, zuzenbidearen adar horretako irakasleek eurek prestatu baitute (ikasleentzat hori bermea izaten da) eta Administrazioako Hiztegian hartu diren erabakiekin koherentea izatea zaindu da (administrazioan erabiltzeko ezinbesteko baldintza). EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolan eta Zuzenbide Fakultatean zeukaten kezka bati erantzuten dio hiztegi honek: lan-zuzenbidea euskaraz landu ahal izatea. Bestalde, batasuna lortu nahian egin denez, eta adostasun horri arreta berezia eskaini zaionez, proposamen hutsari baino balio handiagoa aitortu behar zaio hiztegi honi. Azken orrazketa Ibon Sarasola euskaltzainak eman dio.



Elección y constitución de Ayuntamientos. El cartapacio municipal

Alonso Higuera, C.
Marcial Pons
Madrid, 1999
183 or.

Udal hauteskundearen ondoren aldaketa handiak izaten dira udaletan: batzuek kargua laga behar, eta, karguetara iritsitako beste batzuek, askotan, eskarmentu gutxi. Liburu honetan prozesu horren inguruko xehetasunak jasotzen dira lau atal esanguratsuotan: udalbatzarkideen agintaldiaren amaiera, udalbatza berriaren osaketa, zinegotzien estatutua, eta udal antolaketa. Hainbat idazki bete behar izaten dira udalbatza zaharretik berrirako aldaketa horretan, eta eredu horietako batzuk ere eskaintzen dizkigu liburu honek.



Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa

Alberdi Larizgoitia, X.; laguntzailea: Ugarteburu, I.
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Bilbo, 1999
458 or.

Izenburuak berak dioenez, Euskaltzaindiaren arau berriak jasotzen dira liburuan, hain zuzen ere, 1990ean hasi eta liburu argitaratu bitartean kaleratutako guztiak. "Arau" kontzeptuari buruzko hausnarketa bat egin ondoren, arauak biltzen dira erraz eta labur, eta baita arauok hartzeko erabilitako tradizioa, irizpideak eta abar. Beste atal batean *Hiztegi Batuko* hitzak aurkituko dituzue *Oihan* hitza arte. Liburuaren oinarria EHUko langileentzat antolatutako ikastaroa izan da, eta ikastaro guztietan bezala, ezin falta daitezke ariketak, arauak ikasten eta gogorarazten laguntzeko.



Euskara biziberritzeko plan nagusia

Hizkuntza Politikarako Sailordetza
Eusko Jaurlaritza
Vitoria-Gasteiz, 1999
91-84 or.

Oso osorik biltzen da Euskararen Aholku Batzordeak 1998ko ekainaren 24ko Batzorde Osoaren bileran aho batez onetsitakoa eta Eusko Jaurlaritzaren 1998ko uztailaren 28ko Gobernu Batzordeak onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Planaren helburu nagusienetakoa da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak ematea, bai norbanakoaren alorrean, gizartearenean edota esparru ofizialean. Planak arlo guztiak hartzen ditu, eta datozen hamar urteetan izango du eragina.



La nueva Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa

Estudio y Aplicación Práctica de la Ley 29/1998
Editorial COLEX
Madrid, 1999

Izen bereko jardunaldi batzuk izan ziren iaz Kanarietan, eta han aurkeztutako ponentziek osatzen dute liburu hau. Lege honek 1956koa ordezkutzen du, eta garbi dago garrantzi handia duela administrazioako eguneroko jardunean. Bada, liburuko 18 ponentzietan Lege berriaren eragina eta ekarriko dituen aldaketak aztertzen dira sakon. Azterketa horretan, gai anitz jorratzen dituzte: epailearen eskumenak, zuhurtasunezko neurriak, epaiak betearaztea, epaiari alegazioak jartzea, prozedura laburtua, eta kontrol judiciala besteak beste.

Plana adindunentzako asistentzi

Aste honetako kontua da. Euskal Herritik kanpoko badakit nongo, badakit zein enpresatarako, testu batzuk euskaratu genituen orain dela hamarren bat egun. Telefonoz deia: jaso zutela guk itzulia, eskerrik asko azkar egin genuelako, oso ondo egongo zela dena, eta horrelakoak; foiletoaren azalean gaztelaniazko testua **Plan de Asistencia a los Ancianos** izango zela, eta euskarazko ordaina, **Adindunentzako asistentzi plana...**, bada, ... euskaraz horrela izango zela, baina logoari formato bera eman nahi ziotela bi hizkuntzetan, eta gaztelaniaz **Plan** lehenengo hitza zela, euskaraz berriz **plana** azkenekoa, eta beren artean jardunda zera pentsatu zutela **Plana Adindunentzako Asistentzi** ipintzea.

Guk ezin, bada, onartu horrelakorik, eta esplikazioak ere eman behar omen dira eta, argumentuari buelta eragin, eta egin genien, bada, gure proposamena: Zergatik ez duzue aldatzen gaztelaniazko ordena eta euskarazkoarekin parekatzeten? Alegia, hau ipintzen: **Para los ancianos de asistencia plan.** –Ezetz. Eneee! Horrelakorik!

Euskara zorriztat bazuten ere, ingelesera jo genuen, ospe eta indarreko hizkuntzara, eta **vocabulario de los tratados europeos** ingelesez **European treaties vocabulary** zela esan, eta konturatzeko!: **vocabulario** aurrelaria zela, baina **vocabulary** atzelari. –Baietz, baietz, baina... Azkuraz geratu ziren, ezagun-ezagun.

Hurrengo egunean posta azkarraren bidez bidali ziguten inprentako lana guk ikus genezan eta gutun bat. Gutunekoak dira zati hauek:

Estimados señores: Les envió la prueba definitiva de imprenta de la traducción al euskera que...

... XX insiste en el cambio de algunos títulos o logos, según verán en las pruebas...

... Aduce que lo que pretende es que el formato en eus-

kerá se asemeje lo más posible al de castellano y que si un título o lema comienza por "plan" en español, así lo haga, con su palabra equivalente, en euskera aunque gramaticalmente no sea tan correcto. Incluso llega a proponer que se traduzca palabra por palabra (plan-de-asistencia-a-los-ancianos), sin tener mucho en cuenta la parte gramatical si con ello se lograra asemejar los formatos. El problema de XX es que no quiere cambiar el formato del logo.

... El orden de las palabras en el título (cabecera) de las condiciones especiales ha sido cambiado respecto al original que hizo vuestro equipo, la imprenta quiere saber si esto se entiende en euskera (sí o no) y si es correcta esta versión (sí o no)...

Egia da gutuna luzeagoa zela eta taxuzko gauza pare bat ere esaten zuela. Baina foiletoaren azalean han zegoen, handi-handi, **Plana adindunentzako asistentzi**. Tema horratik!

Nola argitaratuko duten? Auskalo! Izan ere, “Incluso llega a proponer que se traduzca palabra por palabra (*plan-de-asistencia-a-los-ancianos*)” diote, eta, horretaz konturatzan badi-ra, hurrengoan **Plana asistentzi adindunentzako** bat ere izerdirik gabe ipintzeko prest agian!

Dena dela, honelakoek, egia esan, batzuetan poza ere ematen didate, ez beti, baina batzuetan bai; besterik ez bada ere, barrea eragiten digutelako eta geure arteko jardunetako gai direlako. Horrek esan nahi du gauza garela euskarazko (?) aldrebeskerietatik saltsa ateratzeko. Min handiagoa ematen dit, beti gainera, euskaldun batek, aldrebeskeriaz jositako euskaran, txistetzat kontatzea beste euskaldun batek gaztelaniaz botatako disparteata. Zer esan nahi dudan? EZER! Bueno, bai, baina azaltzen dizuet hurrengoan.

Amadeo Abaitua




Zuen istorioen zain gauzkazue ondorengo helbideetan:

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Eusko Jaurlaritza
Wellingtongo Dukearen kalea 2
01010 Vitoria-Gasteiz
Faxa: 945-017603
POSTA ELEKTRONIKOA:
webivap@ivap.es

A b a r a s k a

Erantzun guztiak sei letrakoak dira eta zenbakiien inguruan kokatu behar dira. Erantzun bakoitzaren lehen letra zenbakiaren gainean doa beti. Gogoan hartu hitzak ordu orratzen arabera bideratu behar direla.




LUMA

1. VI. hilabetea.
2. Enbutuak.
3. Ezin hobe.
4. Saiakerak.
5. Aditua.
6. Bi hesolen artean zeharka jartzen diren zurezko habeak.
7. Aitaren aita.
8. Emakume izena.
9. Aran mota.
10. Pluralean, arrainak atzemateko tresna.
11. Altuera.
12. Egokiera.
13. Sustriak.
14. Gozoak.
15. Denborale.
16. Entzumenik ez dutenak.

Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- EIZIE: 943/27 71 11
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/ 27 82 69
- Euskal Irrati Telebista (EITB):
94/ 603 10 00
- Euskal Kulturaren Erakundea:
07-335-59 93 25 25
- Euskaldunon Egunkaria: 943/30 02 22
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/02 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskallegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/01 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailordea:
945/01 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO):
945/01 76 56. FAX: 945/01 76 03
- Kultura Saila: 945/01 94 64
- Nafarroako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusia: 948/10 71 83
- Udal Euskallegiak: 94/440 62 17
943/80 52 54
- UZEI: 943/47 33 77

H i e r o g l i f i k o a



LUMA

Non zeuden zure paperak?

S o l u z i o a k

A b a r a s k a

1. Ekaina. 2. Onilak. 3. Bikain.
4. Saitoak. 5. Ikasla. 6. Langak
7. Aitona. 8. Goreti. 9. Okarari
10. Sareak. 11. Goteia. 12. Okasio.
13. Erroak. 14. Eztabak. 15. Ekaitz.
16. Sorrarak.

H i e r o g l i f i k o a

ERANTZUNA: LIBURUEN ARTEAN.
(LI buruen artean)

Euskadi

Atsegin handiz



